

Elgoibar - 1286. zenb.  
XXI. urtea - 2023-05-19




TOKIKOM BARREN



**Elgoibarrek erabakiko du**

**LAGUNAK**  
colchonaria textil hogar



+



Luzera: 90 | 105 | 135 | 150  
Prezioa: 380€ | 415€ | 495€ | 545€



180 cm-ko luzeerako koltxoietan  
**%5** gehituko da prezioa, eta 200cm-koetan, **%10**

1. PIKE-EHUN EKOLOGIKOA
2. AIRFILL EHUNA
3. POLITEX - 4. BIOTEX
5. HIRU DIMENTSIOKO EHUNA
6. AIREZTAPEN-BALBULAK
7. BONNELL TEKNOLOGIAKO OHE-MALGUKIAK
8. INGURU-KARENAJEA

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)

# Osasun gida

**aldaz**  
hortz klinikak

RPS233/13

**943 366 377**

San Bartolome, 22  
20870 Elgoibar

**NATUR HOUSE**

**Ainara Iriondo Ansola**

GIZA ELKADURAN ETA  
DIETETIKAN DIPLOMATUA

RPS 203/16

Toribio Etxebarria, 22  
Elbar

**677 551 850**

**fisio&mas**

Fisioterapia aurreratua eta  
Kirol Berrogokitzea



Trenbide kalea, 13  
943 740 191 / 667 953 698  
[www.fisio-mas.com](http://www.fisio-mas.com)

RPS 177/12

RPS 271/12

**ainhoa**  
fisioterapia

Jausoro plaza, 6 behea  
Elgoibar

943 531 953  
669 565 745

RPS 183/12

**Uzuri**  
optika audio

Elgoibar  
**943 740 359**

Deba  
**943 192 192**

**leku eder**  
hortz klinika

RPS 171/12

Elena Herrero Lobo

Aita Agirre Enparantza, 5 - Elgoibar

**943 530 053**

federópticos

**ikus**

RPS 65/07

San Bartolome, 10  
Tel.: 943 743 734

# Aurrera, batera! Mendaro



**IÑAKI ARREGUI URIA**  
Mendaroko alkatezarako hautagaria

**EIDER MENDOZA LARRAÑAGA**  
Gipuzkoako diputatu nagusirako hautagaria

PER-DIV-ELIS  
● ● ●



Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.  
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoan erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Leire Kerexeta. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



[facebook.com/barrenaldizkaria](https://www.facebook.com/barrenaldizkaria)



[twitter.com/barreneus](https://twitter.com/barreneus)



[instagram.com/barrenaldizkaria](https://www.instagram.com/barrenaldizkaria)



[youtube.com/@Elgoibarrennet](https://www.youtube.com/@Elgoibarrennet)

## Asier Guisasola Iñiguez

Portu, ubide eta bideetako ingeniaria

### Urari zor



***"Orain arte estrategia geopolitikoetan energia fosilek izan duten pisua urak hartuko du gutxira"***

**K**ilimon errekak ur emari ederra zekarren gaur, aspaldiko partez. Zorionez Mendaron ez da ur edangarri faltarik izango epe ertainean. Hori adierazi zigun behintzat Inma Mugertza geologo adituak orain dela gutxi. Kontuan izan, baina, planetako ur guztiaren %2,5 bakarrik dela geza. Uraren zikloa denok ikasi genuen gaztetan; tamalez, ur hori nola kudeatu behar dugun ez digute behar bezala sekula irakatsi. Doñanara begiratzea besterik ez dago.

Uholdeetan behin eta berriz itota dabiltzan herrialdeek edota ur gabezia dutenek nekez egingo dute aurrera. Ur larregi dutenek gehiegizko bolumen horiek bideratzeko estrategiak bultzatu beharko dituzte: eraikinak ur azpian ez geratzeko edota ur soberakinak lehortetarako gordetzeko obra hidraulikoak eginez, ur emari inguruetan etxebizitzak ez eraikitzeke arau urbanistikoak idatziz... Bestalde, ur eskasia dutenek ur iturri berrien bila joan beharko dira ondoko herrialdeetara. Edo gogorrago dena, emigratu egin beharko dute, atzean euren bizitza zatia lagata.

Gordin-gordin esango dut, orain arte estrategia geopolitikoetan energia fosilek izan duten pisua urak hartuko du hemendik gutxira. Susmoa daukat urari ez zaiola behar lukeen garrantzia eman. Urik gabe nekazaritzarik ez dago, ezta ekosistema berderik ere. Gure herrietako ur sareen batz besteko efizientzia %50koa da; hots, mendi harguneetatik lortutako ur bolumenaren erdia soilik iristen da gure etxeetara eta enpresetara. Erdia bidean "galtzen" da, batez ere distribuzio sare maiz zaharkituetan matxurak eta ur-ihesak daudelako. Ez dugu ez ur sarea ez ur zikloa behar bezala zaintzen eta mimatzen.

Ura osasuna modukoa da, falta denean bakarrik gogoratzen dugu. Zaindu dezagun, kontxo!

BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

-----

### Nik ez dakit, baina...

Gure ondorengoak nola ikasiko dute birziklatzen naturalki, herrian zaborrontzi gris batzuk ipini badizkigute? Herri askotan daude gaur egun kaleetan zabor-ontzi horia, urdina, organikoa eta errefuxa batera dauden kaleko zaborrontziak. Eta gero bagaude erretzailleak, zeintzuk ahalegintzen garen zigarrokina lurrera bota beharrean zorro berezi batzuetara botatzen. Eskertuko genuke kaleko zakarrontziak horretarako ere prestatuta egotea.

Eta, ez dakit, baina... Ez dugu demaseko ikasketa titulurik behar jakiteko, sentitzeko eta pentsatzeko, denok merezi dugula bizitza duin bat. Nola ahaztu gaur egun dauzkagun (edo genituen?) eskubideak gure aurrekoen borrokari ezker dauzkagula! Merezi dugu pentsio duina, nola ahaztu urteetan ezer kotizatu gabe lan egin duten eta egiten duten emakumeak. Non dago askorentzako lan duina?

Non dago askatasuna, hitz horrek duen esanahi guztiarekin... uff!

Non dago osasunerako eskubidea? Norberak nahi duena ikasteko aukera, non dago? *Si no llegas, ¡Te jodes!*

Ba al daukagu pertsona guztiok kaletik lasai, irainik gabe ibiltzeko askatasunik?

Nola da posible oraindik, *hijo/a de puta* esatea normalizat hartzea? Eta noski. "Gure" lurra eta umeek errespetu osoa merezi dutela esan beharrik ez dago! Eta, zuek, guk eta denok! Bihotzez ala diruz? *¿En metálico, tarjeta, bizum, móvil...?*

Ane M.P.

### Oharra

Elgoibarko alkategaiak aurkeztu dizkizuegu gaurko zenbakian, baina PPko ordezkaria falta da, bai azaleko argazkian eta baita elkarrizketan atalean. Alderditik ez digute biderik eman alkategaiarekin zuzenean egoteko eta prentsa arduradunari idatziz bidali dizkiogun galderak ez dizkigute erantzun. Aranzazu Contreras Cordero da Elgoibarko PPko hautagaia.

BARREN



### *Mikel Ansola Heriz*

2023ko maiatzaren 16an hil zen, 62 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.

***Maitasunez,  
beti gure bihotzetan.***

Etxekoak





Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)



943 744 112




688 655 658



### Herritar batek zakarrontzi baten ondoan uzten du zabor poltsa egunero:

"Santa Ana kaleko zaborrontzi baten ondoan zabor poltsa bat agertzen da egunero. Ez dago hori egiteko eskubiderik. Zakarrontzi horretatik hamar metrora daude zabor edukiontzia, eta Antonio Arrillaga kalean ere badaude. Errespetua eskatzen dugu, bizikidetzarako ezinbestekoa da".



### Txaloak Morkaikorentzat:

"Morkaiko Mendizale Elkarteak txalotu nahi dut Morkaiko Eguna antolatzeagatik; aurtengoa ere egun berezia eta ederra izan da herriko mendizaleontzat. Eta antolakuntzalanetan jardun duten boluntario guztiak ere txalotu nahi ditut; eta, batez ere, ostiralean eta larunbatean bota zuen euriarekin bidea markatzen duten zintak jartzen eta kentzen jardun zirenen lana azpimarratu nahi dut. Eskerrik asko denoi!".



### Txalo bat Karakate Bizirik plataformari:

"Karakate Bizirik plataformakoak txalotu nahi ditut Morkaiko Egunean Karakate Bizirik nahi dugula eta mendietan eolikorik ez dugula nahi lau haizetara zabaltzeagatik".



### Mila esker Alzolako tren geltokiaren alde sinatu zutenei.

"Txalo bero bat joan zen larunbatean Elgoibarko itzuliaren barruan Alzolako tren geltokia bai plataformari bere elkartasuna adierazi zioten guztiari".



## Urrezko bi domina lortu dituzte EuskoSkills txapelketan IMHko ikasleek eta brontzeko beste bi Mekakoek



**E**uskoSkills txapelketa, Lanbide Heziketako olimpiadak izenez ezagutzen dena, jokatu zuten joan eguazten eta eguenean Irungo Ficoban, eta IMH Campuseko eta Mekako ikasle talde batek eta haien irakasleek parte hartu zuten bertan, eta lau domina etxeratu zituzten guztira. IMHkoak CAD-Diseinu Mekanikoan, CNC-Fresaketan eta Elkarlan-Robotikan aritu ziren, eta pinturan, karrozerian, soldaduran eta arreta soziosanitarioko sailtan MEKakoak. Txapelketa horretan, urrezko bi domina eskuratu zituzten IMHko ikasleek: Oier Galindo Ramon elgoibartarrak CAD-Diseinu Mekanikoan, eta Alberto Arribas Luque soraluzearrak, CNC Fresaketan. Mekako Miguel Da Silva Rochek, berriz, zilarra eskuratu zuen karrozerian eta John Nunez Dosantosek beste horrenbeste egin zuen, pintura modalitatean.

EuskoSkillsetan irabazita, SpainSkills lehiaketarako sailkatu dira orain. 2024ko urtarrilean jokatzea dute txapelketa hori.

## Jasotako babes eskertu diete Altzolan tren geltokia bai plataformakoek herritarrei



Elgoibarko mendi itzulia bertatik pasatzen zela aprobetxatuta, Altzolan tren geltokia bai plataformakoak sinadurak biltzen egon ziren joan zen zapatuan Altzolako autobus geltoki ondoan, eta eskerrak eman dizkiete babes eskertu zieten guztiei. Era berean, Garraio Sailak euskal trenbide sareko geltokietan sorospeneko 48 totem instalatzeko lizitazioa egin izanaren berri emateko albisteari ere erantzun diete. Albiste horrek dio euskal trenbide sareko geltokietan sorospeneko 48 totem eta 28 kamera hornitzeko eta instalatzeko obra lizitazioa atera dutela, nasarik apartatuenetan edo bidaiariak gutxien erabiltzen dituztenetan batez ere emakumeen segurtasuna hobetzeko. Kontrataziorako oinarrizko aurrekontua 272.000 eurokoa dela zehaztu dute, eta instalatzeko epea zortzi hilabetekoa. Altzola ez da ageri zerrendan, eta plataformatik salatu dute erakunde publikoek, Eusko Jaurlaritzak, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak, Euskotrenek, ETSk eta Elgoibarko Udalak, "ezer ez eginda", apropos eskatu dutela Altzolako zerbitzua, erabilera faltagatik geltokia eraiki beharrik ez dagoela justifikatzeko.

## Narrastiak ezagutzeko irteera antolatu dute Araotzera maiatzaren 27rako

*Gure natura ezagutzuz* egitasmoaren barruan, narrastiak ezagutzeko irteera antolatu dute Morkaiko Mendizale Elkarteak, Baso Biziak elkarteak eta Atxutxiamaikak maiatzaren 27rako. Araotzera egingo dute irteera eta Aranzadi Zientzia Elkarteko Ander Izagirre Egaña izango dute gidari. Irteerarako izena eman behar da <https://labur.eus/narrastiak> loturan sartuta. 9:00etan abiatuko dira Elgoibartik, King Kongetik, eta 16:00ak aldera itzuliko dira.



## Sei enpresa aurkeztu dira King Kong zubia birmoldatzeko lehiaketara

**E**lgoibarko Udaletik jakinarazi dute sei enpresa aurkeztu direla King Kong zubia birmoldatzeko lehiaketara, eta aurkeztu dituzten proposamenak aztertu eta bat aukeratutakoan hasiko dituela hautatutako enpresak obrak; udan, aurreikusitakoaren arabera. Obra faseka egingo dutela zehaztu dute Hirigintza Saitetik, obrak izango duen eragina ahalik eta txikiena izan dadin batetik, eta Urazandirako irisgarritasuna bermatzeko, bestetik.



Lehenengo fasean, igogailu bat jarriko dute King Kongeko autobus geltoki parean eta pasabide berri bat sortuko dute 634 errepedea gurutzatzeko, zeina lotuko den gaur egungoa lotzen den puntu horretara gutxi gorabehera. Era horretan, bermatuko dute bigarren fasean, gaur egungo zubia kentzen dutenean, Maalatik zein Merkatu Plazatik datozen oinezkoek ordezko ibilbide irisgarri bat izatea Urazandira gurutzatzeko. Bigarren fase batean, gaur egungo zubia kenduko dute, konpontzeko. Proiektua idazteko, aurrena zubi horren egoera aztertu zuten, jakiteko zubia bere osoan aldatu behar ote zen edo hobe zen gaur egungoa konpontzea. Zubiaren egiturak zenbat urtetako bizia izan zezakeen baloratu zuten batetik, eta bestetik, zer kostu izango zuen aukera

batek zein besteak, eta ikusita saneamendu lan batzuk eginda zubiak urte askorako bizia izan zezakeela, birmoldatzearen alde egin zuten. Geroko zubiaren taula beraz, berbera izango da, eta leku berean kokatuko dute, baina pendiza kenduta. "Ia lau izango da". Hirugarren fase batean, auzotarrek eskatu zuten karakol itxurako arranja sortuko dute ibaiarekiko paraleloan, igogailua gelditzen denean edo bestela, oinezkoek erabili ahal dezaten.

Eta azkeneko fase batean, zubi berritik Pilarreko ikastetxea zegoen orubera iristeko beste adar bat eraikitzea aurreikusten dute, baina hori Pilarren egin asmo duten proiektuari lotuta egongo da, eta beraz, haren arabera eraikiko dute.

---

### Elgoibarko Udalak 7.875 euroko dirulaguntza emango dio aurten Jubilatuen Biltokiari

Zahartze aktiborako eskaintza sustatzeko, lankidetzeta-hitzarmena sinatu dute Elgoibarko Udalak eta Jubilatuen Biltokiak. Memoria-tailerrak, prebentzio hitzaldiak, kultur hitzaldiak, zine-foruma, teknologia berriak erabiltzeko

tailerrak, irteerak eta dantza ikastaroak antolatu ohi dituzte Jubilatuen Biltokikoek, besteak beste, eta jarduera guzti horiek gauzatzeko 7.875 euroko dirulaguntza emango dio Udalak. Dirulaguntza hori bi zatitan jasoko dute.

---

### Elgoibarko Udalak 61.500 euro banatuko ditu ekintzailtza sustatzeko eta tokiko jarduera ekonomioei laguntzeko, iaz baino 10.000 euro gehiago

Enpresa-jarduera berriak sortzeko eta horiek sendotzeko, eta egungo negozio bideragarriari eusteko 61.500 euroko dirulaguntza banatuko du aurten Elgoibarko Udalak. 2022an baino 10.000 euro gehiago banatuko ditu, beraz, aurten, Udalak. Dirulaguntzak

lortzeko eskabideak aurkezteko epea 2023ko azaroaren 30ean amaituko da (egun hori barne). Dirulaguntza eskaerak elektronikoki egin beharko dira, Udalaren web orriaren bidez: [www.elgoibar.eus](http://www.elgoibar.eus). Webgune horretan bertan topatuko duzue informazio gehiago.

## Elgoibarrek behar duen egoitza ereduari buruzko gogoeta falta dela diote Duintasuna-Gaurgeroatik

Pilarreko orubean eraiki asmo duten egoitzaren proiektuarekin eta kudeaketa ereduarekin kezkatuta daude Duintasuna-Gaurgeroan. Pilarreko egoitzarena "gezurren, bete gabeko promesen, engainuen eta gurutzatutako interesen historia" dela salatu dute, eta kronograma batean jaso dituzte orain arte instituzioetatik esandakoak eta emandako pausoak. Gogorarazi dute 2009ko urrian atera zutela lehiaketara egoitza berriaren proiektua eta Alfredo Etxeberria orduko alkateak agindu zuela 2014. urtean gauzatuko zela obra. 2013ko irailean esleitu zioten gero eraikina eraisteko lana Murgil Eraikuntza enpresari. Obrak egiteko 157.188 euroko aurrekontua zuen eta bi hilabeteko epea.

Eta geroztik, proiektu hori "progapaganda egiteko" erabili dela uste dute Duintasuna-Gaurgeroan. Horren harira gogorarazi dute Etxean Bizi proiektua ere sortu zutela agintariak, "itxura ona zuena", baina inork ez dakiela zertan gelditu zen. "Ziur aski, dirua gastatu arte iraun zuen, baina non daude emaitzak? Zer gertatu

zen, betikoei ez zitzaizela negoziatorik gelditzen?", jaso dute.

Herritarrek zein eredu mota nahi luketen erabakitze eskubidea dutela nabarmendu dute eta ukatu egin zaiela salatu. 14 urtean horretarako denbora egon dela diote. "Orain, ziurrenik, egoitzaren obra egingo da. Pandemian zehar egoitzak txikiak izan behar zirela esaten zen, hobeto kudeatzen zirelako, eta orain, makro-egoitza proiektu batekin datoz, makro, munduko handiena, baina agerian geratzen da egia, dirua non geratzen den aztertzean", adierazi dute horren harira. Eta gehitu dute: Aldundiak egoitza baten kudeaketa enpresa lagun bati ematen badio (3.000 euro egoiliar bakoitzeko), zer gertatzen da enpresaburuari kontuak ateratzen ez bazaizkio? Argi dago nondik hasiko diren murrizketak: langile kopurua, soldata txarragoak, berogailu gutxiago, janari eskasagoa... Horien adibide ona da langileen greba luzea, non, besteak beste, egoiliar bakoitzarekin egoteko denbora gehiago eskatzen zuten".

### 38 postu jarriko dituzte bihar Lekuederren egingo duten Zientzia Azokan

Bizipen zientifikoak zabalduko dizkiete herriari hurrek bihar Lekuederren egingo duten Elgoibarko Bigarren Zientzia Azokan. 11:00etan zabalduko dute azoka, eta 14:00ak bitartean egongo da bisitatze aukera. Guztira, 38 postu jarriko dituzte ikastetxeetako gazteen eta haurren proiektuekin, Bizilabe ekimenean parte hartzen duten haurren lanekin eta Robotika ikastaroko ikasleen lanekin. Horrez gain, stand profesionalak eta Lanbide Heziketako ikastetxeen eta unibertsitateen postuak ere izango dira.



### Bihar Lurraren defentsan egingo den manifestaziorako autobusa, Elgoibartik

Lurraren defentsan, Euskal Herria bizirik dinamikak deituta manifestazioa egingo dute bihar Gasteizen eta Karakate Bizirik bat egin du deialdiarekin. Hala, autobusa ere antolatu dute

Elgoibartik. 18:00etan hasiko da manifestazioa eta 16:00etan irtengo da autobusa Txankakuatik. Izena emateko: Lanbroa, Jai Alai eta Ibai Ondo. Emaillez: [karakatebizirikelgoibar@gmail.com](mailto:karakatebizirikelgoibar@gmail.com).



## Adinekoen zaintza sistema diseinatzeko eta zehazteko diagnostia egiten hasi dira Elgoibarren

**Z**aintzalab egitasmoaren barruan, 65 urtetik gorako elgoibartar guztiei galdetegi bat bidali diete Udaletik, zaintzaren alorrean ikusten dituzten arazoak eta beharrak identifikatu ditzaten. Iraupen luzeko zainketa arloko jardunbide egokien esperientzia pilotua sortu nahi dute egitasmo honen baitan, eta egitasmoa gauzatzeko, hiru epe zehaztu dituzte. Iaz, zainketa arloan tokiko esperientzia berritzaileen jardunbide egokien gida sortu zuten, zaintzaren arloan tokian tokian egin diren esperientzia berritzaileei buruzko informazioa eta ezagutza identifikatu eta bilduta. Eta orain, bigarren fase

batean, Elgoibarko zainketei buruzko diagnostiko bat egingo dute, ondoren zaintza-ereduaren jardura-plan bat diseinatzeko.

Diagnostia egiteko galdetegia jaso duten adinekoek maiatzaren 22a arteko epea izango dute galderei erantzuteko. Inkesta Herritarren Arretarako Zerbitzuan (HAZen), Jubilatuen Biltokian, Aita Agirre kulturgunean, Olaizaga kiroldegian edo Musika Eskolan entregatu daiteke, leku horietan ipini dituzte kutxetan. Nolanahi ere, galdetegia online ere bete daiteke esteka honetan: <https://labur.eus/ZaintzaLabElgoibar>

### LGTBIQ+ fobiaren aurkako elkarretaratzeak egin dituzte Elgoibarren



LGTBIQ+ Fobiaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira, LGTBI kolektiboaren eskubideen aldeko aldarrikapenak plazara atera zituzten eguaztenean Elgoibarren. Eguerdian Elgoibar BH Institutuko Hezkidetza Taldeko ikasleak batu ziren Kalegoen plazan, eta arratsaldean, Udaleko

ordezkariak eta zenbait herritar.

Hezkidetza Taldeko kide diren hiru ikaslek hiru testu irakurri zituzten jendaurrean, eta gero elkarretaratze isila egin zuten. Arratsaldean ere mezu bat irakurri zuten, eta isilik egin zuten elkarretaratzea.

## 'We make Debarrena!' STEAM erronkan parte hartu dute Elgoibarko hiru ikastetxek

Ikasturtean zehar zientziaren eta teknologiaren esparruan egindako proiektuak biltzen ditu *We make Debarrena!* STEAM erronkak, eta maiatzaren 26ra arte egongo da zabalik erronka.

Guztira 27 esperimentu aurkeztu dituzte eskualdeko 11 ikastetxeetako ikasleek, eta parte hartu dutenen artean daude Elgoibar BHI institutua, Elgoibarko Herri Eskola eta Elgoibar Ikastola ere. Hiru kategoriatan sailkatu dituzte erronkak: LH4, LH5-6 eta DBH 1-4, eta bideo guztiak honako esteka honetan ikusi daitezke: <https://bptdmakers.eus/steam-erronka>. Horiek guztietatik saridunak

aukeratzeko bi irizpide hartuko ditu kontuan epaimahaiak: batetik, bideoek dituzten ikustaldi kopurua (ekainaren 26ra artekoak hartuko dituzte kontuan), eta bestetik, epaimahaiakideen balorazioa. Epaimahai hori BPTDrekin eta STEAM bokazioarekin lotutako sei erakunde eta enpresatako pertsonek osatuko dute.

Maila-tarte bakoitzeko talde-irabazleak bi sari izango ditu aukeran: Euskal Kostaldeko Geoparkearen bisita gidatuaren eskaintzetako bat edo 500 euroko erosketa-bonoa eskualdeko elektronika denda batean STEAM eskolako materiala erosteko (talde osoarentzako biak).

### Zapatuero soberan gelditu zaien arraina Gurutze Gorrikoiei ematen diete La Bermeana arraindegikoek



Azken bi urteetan zapatu eguerdiro errepikatu den irudia da argazkikoa: Gurutze Gorriko furgoneta bat aparkatuta, La Bermeana arraindegia irekia. Ez da, baina, dirudiena. Ohikoa ez den zeregin baterako erabiltzen baitute furgoneta, kasu honetan ere premia duten herritarrei laguntzeko bada ere. Arrainez beteriko kaxak sartzen dituzte furgonetan, premian dauden elgoibartarren artean banatzeko. Fruta denda, harategi eta antzerako negozioetako soberakinak ere jasotzen dituzte Gurutze Gorrikoek, eta aipatu moduan azken bi urteetan zapatuero egiten dute geldialdia La Bermeana arraindegiko atarian. Arraindegikoak

pandemian hasi ziren soberan zuten arraina ematen. "Gurutze Gorriko Soniarekin berba egin nuen eta berak ireki zizkidan begiak. Ez nuen uste Elgoibarren janari premian horrenbeste familia dagoenik. Halaxe hasi ginen premia ekonomikoan dauden herritarrei laguntzen, Gurutze Gorrikoekin elkarlanean, eta gure esku dagoena egiten, arraina ematen. Bost edo sei familiek jan ahal izateko adina arrain ematen diegu astero, eta batzuetan zertxobait gehiago ere bai, era guztietako arrainak: txitxarroak, legatza batzuetan, muskuiluak, txirlak... denetarik pixka bat", azaldu du arraindegiko Alberto Perezek.



# EURITAN MARTXAN

✍ Ainhoa Andonegi / 📷 Asier Orbea

Euriak ere ez zuen galdu nahi izan Morkaiko Eguna. Zerua goibel esnatu zen eta iragarrita zegoena baino lehenago hasi zen euria, baina hala ere, asko izan ziren mendirako bidea hartu zutenak. Nagusiek itzulia egin zuten, eta familiek, itzulitxoak. Aiastian bat egin zuten askok indarrak berreskuratzeko, eta handik Kalamuarako bidea hartu zuten nagusiek, eta herrirakoak besteek. Finalista Eguneko dominak zituzten zain umeez plazan. Bideoa eta argazki gehiago: [barren.eus](http://barren.eus)





## Herritar talde baten babesa jaso du Mendaroko EH Bilduk



**M**aiatzaren 28an egingo diren Udal eta Foru Hauteskundeetarako EH Bilduk herrirako aurkeztu duen zerrenda babesteko taldeko argazkia atera zuten barikuan, Mendaron. Alderditik zabaldu dute mendaroar guztiekin

batera etorkizuneko erronkei aurre egiteko prest dagoen herria eraiki nahi dutela, "herri ezkertiarra, feminista, ekologista, herrikoia eta euskalduna, aniztasunean eta berdintasunean oinarritutakoa".

## "Zerbitzu gehiago eta hobeak" izango dituen garraio publikoa sustatuko dituela agindu du Ahal Dugu Podemosek

**M**iren Echeveste Elkarrekin Podemos Ezker Anitza-IU Berdeak Equio Alianza Verde alderdiko Gipuzkoako ahaldun nagusiak Elgoibarren egin zuen zapatuan kanpainako ekitaldia, Evaristo Rodriguez Ahal Dugu-Podemosen Elgoibarko alkategaiarekin eta Isabel Fernandez Eibarkoarekin batera. Bertan, Gipuzkoak mugikortasunaren arloan duen arazoa konpontzeko lan egingo zuela agindu zuen, lurralde kohesioa eta klimaren aldaketaren kontrako borrokan aurrera egitea eragozten duela arrazoituta. Horren harira esan zuen herritarrentzat erakargarria den garraio publikoaren aldeko apustua egingo dutela, horretarako zerbitzuak gehitu, hobetu eta merketuz, helburua, beti ere, doakotasuna dela zehaztuta. Proposamenen artean, Elgoibartik Debarainoko bidegorria sortzeko konpromisoa agertu zuen: "Eskualdeko herritarren eskaera historikoa da, eta Foru Gobernuak modu sistematikoan entzungor egiten du. Bizikletentzako bide hori aurrekontuetan sartuko dugu". QR kode



baten bidez zabaldu ditu Rodriguezek legegintzaldi honetan Udalean aurkeztu dituzten proposamenak eta taula horretan ikusi daiteke zein egoeratan dauden proposamen horiek.

Evaristo Rodriguezek, bestalde, esan zuen ez dagoela pozik Elgoibarko udal gobernuak gauzak egiteko duen moduarekin eta "herritarrei bizkarra emanda, opakotasun osoz eta jendeari parte hartzen utzi gabe" gobernatzea leporatu zien: "Gutxi batzuentzat gobernatzen du, eta inoiz ez ditu konpontzen auzokoak benetan kezkatzen dituzten arazoak". "Arkume-larraz jantzitako otso asko" ikusten dituela nabarmendu zuen, kanpainan "agintzen eta agintzen" eta horren harira esan zuen.



## Jokin Bildarratz sailburua eta Maialen Gurrutxaga EAJren alkategaia IMHn eta Mekan izan dira bisitan



Jokin Bildarratz Hezkuntza sailburuak eta Maialen Gurrutxaga EAJren Elgoibarko alkategaia Meka Lanbide Eskola eta IMH Fabrikazio Aurreratuaren eta Digitalaren Campusa bisitatu zituzten eguenean. "Talentuaren, hezkuntzaren eta berrikuntzaren alde egindako apustuaren" barruan kokatu zuen bisita Elgoibarko EAJk. Maialen Gurrutxagak esan zuen industria izan behar dela azpiegiturak, zerbitzuak eta bizi-kalitatea hobetzeko oinarria eta agindu zuen EAJtik herriko industriari eutsiko diotela. EAJren alkategaia esan zuen Elgoibarko industria sendotzen eta hedatzen lagunduko duten proiektuak garatu nahi dituztela, eta horretarako, lurra bilatzen eta enpresak Elgoibarrera erakartzeko aukerak aztertzen ari direla.

### Eztabaida politikoa

EAJren Elgoibarko alkategai Maialen Gurrutxagak udal hauteskundeetarako alkategai guztien arteko eztabaida publikoa proposatu du, euren proposamenak herritarren aurrean zuzenean azaltzeko. Bere ustez, elgoibartarrekin gardentasun eta begirune ariketa bat izango litzateke, udalerriko kalitate demokratikoaren mesederako. Udalean ordezkariak duten alderdi politiko guztiei eskatu die bere proposamena baloratu eta iritzia emateko. Gainera, parte-hartzaile guztien artean eztabaida gauzatzeko data, lekua eta jarraibideak hitzartzea proposatu du.

## Deba ibaia lehengoratzeko proiektua aurkeztu du Elgoibarko EH Bilduk

Deba ibaia herriko sare urbanoan eta herritarren ohiko bizitzan txertatzeko proiektua aurkeztu zuen Elgoibarko EH Bilduk zapatuan. Deba ibaiaren ondotik egitekoa zuten ibilbidean geldialdiak egiteko asmoa zuten beren proposamena azaltzeko, baina azkenean, eguraldiagatik, Bilgunean eman zituzten argibideak. Hiru lagunek hartu zuten hitza: Ibai Iriarte Tolosako alkate izandakoak eta egun legebiltzarkide denak, Fermin Lazkano Elgoibarko EH Bilduren zerrendakideak eta Aitziber Aranberri alkategaia.

Elgoibarko Udalak ingurumen teknikaririk ez izatea "lotsagarria" dela esanez hasi zuen bere hitzartzea Aranberrik, Bilduren proposamenak aletzen hasi aurretik. Proposamenen artean aipatu zituen Eibartik datorren bidegorria Altzolara arte luzatzea, herrigunetik kanporako ibilbideak naturalizatzea, eta herri barrurako ordenamendu urbanistiko berria proposatzea.

Horren harira aipatu zuen Deba ibaia Elgoibarko ardatz bihurtzeko helburuarekin, ideia-lehiaketa publiko bat antolatzeko asmoa duela EH Bilduk, ondoren aurkezten diren proiektuak herritarrei azaldu eta partaidetza prozesu bat zabaltzeko.

Iriartek, bestalde, Oria ibaia lehengoratzeko urteetan egindako lana eta haren inguruan egindako eraldaketa urbanistikoa azaldu zituen eta nabarmendu zuen "arnasa luzeko ahalegin horri eusteko" funtsezkoa izan dela EH Bilduren konpromisoa. Eta konpromiso hori Elgoibarko EH Bilduk baduela azpimarratu zuen Fermin Lazkano zerrendakideak. Haren esanetan, herritarren bizi-kalitatea hobetzea da alderdiaren iparrorraztetako bat, eta horretarako lau aldagai zaindu behar direla uste du: egoera sozioekonomikoa, ezagutza, harreman sozialetarako aukerak eta ingurumenarekiko harremana. Hain justu ere, ingurumenarekiko harreman hori zertan datzan azaldu zuen Lazkanok.



*"Herritarrei konfiantza eskatzen diegu,  
aurrerantzean ere esandakoa beteko dugulako"*



# MAIALEN GURRUTXAGA

EAJren Elgoibarko alkategaia

Aho batez aukeratu zuen Elgoibarko Uri Batzarrak herriko alkate izateko hautagaitzat Maialen Gurrutxaga Uranga (Elgoibar, 1992). 2015etik da zinegotzi, eta 2016tik, legebiltzarkide ere bada. Kimikan graduatua da EHUn, eta azkeneko legegintzaldian Euskara, Gazteria eta Berdintasun Sailen arduraria izan du Udalean. Era berean, EAJren bozeramaile lanak ere bete ditu Elgoibarren. 19 urte zituela batu zen EGira, EAJren gazte erakundera.

## Alkategai izateko proposatu zaitu alderdiak. Zerk bultzatu zaitu baietza ematera?

Politikan sinisten dut, herrigintzan. EAJk proiektu sendoa du, eta jaio naizen herriari nire ekarpena talde lanean egin ahal izateak betetzen nau.

## Zergatik eman beharko genizuke botoa?

Azken urteetan, zinegotzi eta legebiltzarkide lana etengabeko ikasketa prozesu bat izan da: herria eta herritarrak hurbil sentitu, ezagutu eta ulertzeko aukera paregabea. Elgoibartarren bizi-kalitatearen hobetzea oinarritzat hartuta, proiektu onenak proposatzen ditugulako. Eztabaida eraikitzailean sinesten dudalako eta akordioak bilatzen ditudalako. Eta garrantzitsuenak, talde sendo batez nagoelako inguratuta; konprometituenak izateaz gain, ekonomia, gizarte ekintza, enpresa eta hiri planeamendua bezalako arloetan iaioak diren taldekideez.

## Zure alderdiak duela lau urte hainbat proiektu aurkeztu zituen legegintzaldi honetan egitekoak zirenak. Proiektu horien errepassoa eginda, zein mailatan bete direla esango zenuke?

Maila oso altu batean bete ditugu denak, esan dezakegu proiektu guztiak eginda edo egiten ari direla. Hitzeko pertsonak osatzen dugu EAJ eta horregatik herritarrei konfiantza eskatzen diegu, aurrerantzean ere esandakoa beteko dugulako.

## Zeintzuk dira Elgoibarrek dituen hiru gabezia handienak, eta, kontrara, zein indargune ditu?

Batez ere gure orografiak sortzen dizkigun zailtasunak; lehen, gure lur industrial

handitzeko; bigarrena, irisgarritasuna auzo guztietara bermatzeko. Azkenik, eraikin industrial degradatuek okupatzen duten guneen errekupezioa.

Indarguneak asko dira. Elgoibar beti izan da herri parte-hartzailea, kaleak bizirik daude eta hori elgoibartar guztiei esker da. Herriko eragileek Udalarekin elkarlanean antolatzen dituzten ekintzei esker. Industrian maila gorenean egoteagatik ezagunak gara munduan. Hezkuntzatik hasi, lan mundurako trantsizioan eta industri lanean erreferente gara. Eta horrek munduan kokatzen gaitu.

Aurrera egiteko aukera asko ditugun herria gara, gure jaiotze-tasa bailaran onenetakoa da, gure bizitza proiektua bertan egiten dugun gazteak asko gara, eta horrek etorkizuna ematen digu.

## Zein dira datorren legegintzaldiko dituzten hiru proiektu garrantzitsuenak?

Herritarren bizi-kalitatea hobetuko dutenak dira hirurak: Hasteko, gizarte zerbitzuen sarea. Errezabal egoitza errealitate bat izango da, baina ez da izango dugun baliabide bakarra. San Lazon egingo diren bizitza guztirako etxebizitzak eta Santa Klararen erabilera sozialak, etxez etxeko laguntzaren indartzearekin batera, zerbitzu sare sendo bat emango dio Elgoibarri.

Honekin batera, anbulatorio berria. Zerbitzu gehiago eskaini eta kokaleku hobea izateaz gain, kultur etxe inguruan plaza estali bat sortuko dugu, errekarari begira ipiniko gaituena eta anbulatorio zaharrean gazteentzako alokairurako etxebizitzak egiteko aukera zabalduko zaigu.

Azkenik, irisgarritasuna hobetzea. King Kongeko zubiaren proiektua, Urazandiko igogailu berria eta espaloiak zabaltzea, Artekale kaleko igogailu berria... Hainbat proiektu gauzatuko ditugu zentzu honetan.

## ‘Euskalgintzan eta kulturgintzan krisian gaude’, zioen Jon Sarasua Euskararen Gogoetagusuna egitasmoaren koordinatzaileak, eta zioen ez dauzkagula beste hamar urte despistatuta egoteko; jauziak eman behar direla. Zer jauzi emateko prest zaudete euskalduntasunean sakontzeko eta elgoibartarrak komunitate moduan ahalduntzeko? Zer, herri-kohesioa indartzeko?

Euskaraz dakigun eta euskaraz aritzeko gaitasuna dugun elgoibartarrak gero eta gehiago gara eta Udalari eta eragileei dagokigu euskaraz

gozatzeko, euskaraz ondo pasatzeko espazio eta momentuak ematea herritarrei. Horregatik, kulturaz hitz egiten dugunean, eskaintza kulturalaz hitz egiten dugunean, euskarazko kulturaz hitz egin behar dugu. Baina, baita ere kirolaz hitz egiten dugunean, aisialdiaz; gure hizkuntzan ondo pasatzen badugu, erabiliko dugulako.

### **Zer eskaintza dakar zure alderdiak Elgoibar herri abegikorragoa egiteko?**

Berdintasuna zentzu zabalean lantzea. Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna, behar bereziak dauzkaten pertsonena edota atzeritik etorritako pertsonen eta Elgoibarren jaiotako artekoa. Gizarte beraren parte gara guztiok, eta aukera berdintasuna bultzatuko dugu. Aisialdian, lanean eta kalean. Komunitate izaera sustatu nahi dugu, berdin edo desberdin pentsatu arren, lankidetzan eta errespetuan oinarritutako Elgoibar bat lortzeko.

### **Erakundeen eta alderdi politikoen aurkako sumindura, etsipena eta frustrazioa orokortu egin direla diote azken ikerketek eta alderdietatik kanpo politika egiteko hautua zabaltzen ari dela. Zuen posiziotik zer gogoeta egiten duzue honen inguruan?**

Politikan sinisten dut eta politikak duen indarrean; gure herriaren alde egiteko tresna oso indartsua da. Herri politika Espainiako kongresuko zirkutik oso urruti dagoela esan nahi dut. Politikan dihardugunok oinak lurrean izan behar ditugu eta elkar entzun eta ulertu behar gara. Batez ere herritarrei entzun eta elkarrekin identifikatutako beharrei erantzuteko proiektuak garatu behar ditugu. Hori da gure jarduteko modua eta horregatik eskatzen dugu konfiantza, gure helburu bakarra zintzotasunez eta apaltasunez Elgoibarrek aurrera egiten jarraitzea delako. Kalean ibiliz, belarriak entzuteko prest edukiz, besoak zabalik akordioak lortzeko eta burua sendo proiektuak aurrera ateratzeko.

### **Pandemiak erakutsi du egoera zaugarrienetan hurrak eta adin nagusikoak direla ahaztuenak, ez direlako parametro produktibistetan txertatzen. Zer duzue eskuartean direnak baino zaugarriago izan ez daitezen?**

Hurrak gure etorkizuna dira, eta horregatik familientzako espazio egokituak izatea

*"Horregatik eskatzen dugu konfiantza, gure helburu bakarra zintzotasunez eta apaltasunez Elgoibarrek aurrera egiten jarraitzea delako"*

ezinbestekoa da guretzat. 0-6 urte bitarteko haurrei erantzuna emateko familia txoko baten alde egin nahi dugu. Modu horretan, 0-tik 18 urte arte, kalitatezko zerbitzua eta ibilbide propio bat izango dugu.

Adin nagusikoei begira, gizarte zerbitzuen mapan beraiek izango dira protagonista nagusiak. Aurretik esan bezala, Errezabal egoitza, San Lazaroko etxebizitzak, etxez etxeko zerbitzuaren hobekuntza... guzti hauek beraien autonomia ahalik eta luzaroen mantentzeko helburuarekin.

Bai haurren eta bai adin nagusikoen kasuan, zaintzak pisu handia hartzen du, eta bide horretan, Udala gaur egun *ZaintzaHerriLab* proiektuan murgilduta dago, zaintzaren ekosistema propioa izateko helburuarekin. Bide hori da gurea, eredu propioa izatearena.

### **Nola definituko zenuke gazteekin duzen harremana? Zer duzue haiei eskaintzeko?**

Gaztea naiz oraindik, 30 urterekin. Gazteekin harremantzen naiz egunerokoan, gure hautagaitzan ere pertsona gazte ugari gaude eta oso ondo ezagutzen ditugu gazteen beharrak. Bide horretan, gazteek gure bizitza proiektu propioa Elgoibarren garatzeko, gazteen alokairurako etxebizitzaren proiektua jarriko dugu mahai gainean, anbulatorio zaharrerako.

Gazteek gazteekin antolatutako egunak lankidetzaren oinarriak finkatzen ditu, elkartegintzaren kasuan bezala. Eta zentzu horretan, gazteentzako eskaintza kulturala hobetzen jarraituko dugu, beraiekin lankidetzan, edota beraien esku baliabideak jarritz.

### **Ekonomiaren eta enpleguaren arloetan zertan sakonduko duzue? Zein izango da zuen proiektu izarra?**

Hasteko, hezkuntzan. Uste dugu ditugun baliabideak aprobetxatu egin behar direla, bai IMH zein Meka, enpresa sektorearekin batera, gure gazte, emakume eta pertsona guztiei lan

mundura zabalduko dieten hezkuntza sendo bat emateko. Industriari dagokionez, Elgoibarko enpresak bertan geratzea nahi dugu, eta berriak erakartzea. Horretarako lur industrialak egokitu eta sortu behar dugu. Zenbat eta industria gehiago, kalitatezko lan gehiago. Merkataritzari dagokionez, merkataritza suspertu nahi dugu, eta lokal hutsetan jarduera ekonomikoak ahalbidetzeko laguntzak ipini.

Hori guztia, lehen sektorea ahaztu gabe, bertako produkzioa bultzatuz, nekazal jarduerak izaten dituzten trabak erraztuz eta herritarren artean tokiko produktuen kontsumoa bultzatuz.

### **Bizitzak erdigunaren jarri behar direla babestu duzue. Zer ulertzen duzue bizitzak erdigunaren jartzearekin?**

Proposamen, ekintza edo erabaki guztiak, herritarren pentsatzen egitea, bakoitzak dauzkagun desberdintasunak kontuan izanda. Pertsonen beharrak asetu eta bizitza proiektuak aurrera eramateko baliabideak ipiniz. Ongizatean, segurtasunean edo bizi-kalitatean pentsatzen lan egitea. Beste edozein interes edo anbizioren aurretik, elgoibartarrak ipintzea.

### **Herritarren parte-hartzea sustatzeko asmoak alderdi guztien programetan jasotzen dira urtero. Nola ulertzen duzue herritarren parte-hartzea?**

Herritarrei entzutea eta aintzat hartzea, horretarako aurkezten gara politikariok hauteskundeetara. Konfiantza eskatzen dugu eta hurrengo lau urteetan herritarrak aintzat hartu behar ditugu, herritarrak entzuteko gaitasuna izan behar dugu eta hori apaltasunez egin beharra dago, plan berezi eta haundikiak alde batera utzi eta pertsonekin elkartu eta hartu eman zintzoa edukiz. Eguneroko lana da.

### **Zerk egiten du herri bat bizigarri? Zer proposatzen duzue?**

Herriko plaza, kale eta auzoak. Bertako denda, komertzio eta taberneak. Inguruko mendi, baso eta errekek. Baina batez ere, herritarrek. Gazteriak, emakumeak, kultur eta kirol elkarteak. Kultura plazaratu nahi dugu, kiroldegiak bete, hau guztia berdintasunetik. Elgoibarko inguruak zaindu, eremu degradatuak berreskuratu eta Elgoibarko negozioak suspertu.

## **MOTZ-MOTZEAN**

### **Leku bat?**

Atxolin.

### **Zerk ateratzen zaitu zure onetik?**

Alperkeriak, gezurrek eta injustiziak.

### **Zerk kentzen dizu loa?**

Oso ondo egiten dut lo; orain, bi ume txikirekin, ez hainbeste. Baina beti diot, norberaren buruarekin ondo egonda, kontzientzia lasaiarekin, ondo lo egiten dela.

### **Zein dira zure eguneroko poz txikiak?**

Nire alabak, etxearekin egotea.

### **Zer bertute duzula uste duzue? Eta, zer akats?**

Entzuteko eta ulertzeko gaitasuna dudala. Akatsa, berriz, ez dakidala geldi egoten. Lasaitasun piska bat eskertuko nioke nire buruari.

### **Besteengandik zer baloratzen duzue gehien?**

Zintzotasuna eta ekimen propioa izatea, sinisten duzunaren alde lan egitea.

### **Liburu bat? Kantu bat? Film bat...**

Kantu bat: *Egun Argian* (Mikel Urdangarin), *Nortasuna eraikitzen* (Berri Txarrak) eta *Copenhagen* (Vetusta Morla)

Film bat: *Cinco lobitos*

### **Zerekin egiten duzue amets?**

Berdintasun errealekin.

### **Nola begiratzen diozue munduari?**

Arduratsu, kuriositatez eta baikortasunez.

### **Zertan zara pribilegiatu?**

Maitasunean, ingurukoekin ematen didaten beroan. Tribu ona daukat, privilegio bat nerretzat.







*“Elgoibarrek hobetzeko aukerak dituela sinisten dudalako onartu nuen alkategai izateko proposamena”*

# AITZIBER ARANBERRI

EH Bilduren Elgoibarko alkategaia

**2021ean hartu zuen Aitziber Aranberriek Elgoibarko EH Bilduko bozeramaile kargua Jon Peli Uriguenen ordeztu, eta ordutik bera da koalizioako burua. 2023ko udal hauteskundeetarako Aranberri bera aukeratu zuen alkategai izateko EH Bilduren oinarriak eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko hautagai "sendoa eta ezin hobea" zela esan zuten. Aranberriek dio "ilusioz eta arduraz" hartu duela kargua.**

## **Zerk bultzatu zaitu hautagaitzari baietza ematera?**

Arrakalak ixteko eta paperean ditugun eskubide horiek lortzeko aukera bezala ulertzen dut politika, eta aldebakarreko edo inposatutako erabakiak hartu beharrean, lankidetzaren eta zuzeneko harremanen aldekoa naiz. Elgoibarrek hobetzeko aukerak dituela sinisten dudalako onartu nuen proposamena. Konformismoak eta etsipenak aukera berrietatik urruntzen gaitu. Sentitzen dudanaren alde borrokatzen jarraitzeak bizirik sentiarazten nau. Belaunaldi berriak herri honetaz harro sentitzea eta inguruan dutenaren parte sentitzea nahi nuke.

## **Zergatik eman beharko genizuke botoa?**

Niri ez, talde zabal eta sendo bati emango zaio botoa, izan ere EH Bilduren proiektu politikoa hauteskunde emaitza on batzuek eskuratzetik harago doa. Azken legegaldi honek agerian utzi ditu Elgoibarrek dituen beharrak, eta horiei aurre egiteko moduak. Hobetzeko garaia da. Guk herri kohesioa eta guztiontzat herri atseginagoa lortzea dugu helburu. Herritar eta eragile desberdinen arteko lankidetzaren ezinbestekoa izango da ditugun erronkei erantzuteko eta partaidetza izango da hartuko diren erabakien oinarrietako bat.

## **Zure alderdiak duela lau urte hainbat proiektu aurkeztu zituen legegintzaldi honetan egiteko. Errepasoa eginda, zein mailatan bete dira?**

EH Bilduk Udalean aurkeztu dituen proiektuak eta proposamenak herritarrek egindako eskarrietan oinarritutakoak izan dira, eta horien bideragarritasuna aztertzeke zilegatasun osoa izan

arren, gehienak baztertu egin dira edo partzialki jarri dira martxan. Mintxeta eta Santa Klarako proiektuak, pandemia garaiko dirulaguntzak, herribusak, lur publikoen erosketak edo hainbat auzo eta espazioren irisgarritasuna hobetzeko proposamenak, adibidez. Hala ere, udalbatzarrak zuzenean jarraitzeko streaminga jarri izana, Toletxe kaleari izena aldatzea, bertso eskola edo kirol txartelen lagapena modu positiboan baloratzen ditut.

## **Zeintzuk dira Elgoibarrek dituen hiru gabezia handienak, eta, kontrara, zein indargune ditu?**

Udala eta herritarren arteko urruntasunak eta aldebakarrez hartutako erabakiek udal politikarekiko eta ordezkarienganako konfiantza galtzea ekarri dute. Trantsizio energetikoa, aldaketa klimatikoa eta herritarren ongizatea uztartuko dituen plan orokor baten falta agerikoa da. Oinarriko eskubideekin lotutako zerbitzuak mugatu izanak edo pribatizazioak joerak herritar guztien ongizatean dute eragin zuzena, eta galdutakoa berreskuratzea lehentasunezkoa da. Elgoibarren industriak duen garrantzia ere indargunea da. Beraz, esparru desberdinetan eragile desberdinen elkarlana sustatzeak hobea egingo du herri hau.

## **Zein dira datorren legegaldirako dituzuen hiru proiektu garrantzitsuenak?**

Deba ibaiaren lehengoratzeko eta ibaia gure bizitzan integratzeko paseagarri bihurtzea, Maltzagako bidegorriari jarraipena ematea eta Altzolan egingo dugunarekin lotzea, eta komunitate energetikoak bultzatu eta lur publikoak nabarmen hedatzeko behar diren erosketak egiteaz gain, gure herri hau bizigarri egiteko aldagai desberdinak kontuan hartu behar ditugu.

Gure herritarrei independentzia pertsonala bermatzeko, konpromisoa hartzeaz gain baldintzak ere ezarri behar ditu Udalak. Gazteentzako etxebizitza laguntzetarako baldintzak erraztu behar dira eta baliabide eta espazio gehiago eman. Zaintzaren alorrean, etxeko zerbitzuaren baldintzak berrikusiko dituen zaintza eredu komunitario batean oinarritutako kooperatiba publiko bat sortuko dugu. Adinekoen egoitza berriaren kudeaketa publikoa izan dadin lan egingo dugu.

**‘Euskalgintzan eta kulturagintzan krisian gaude’, zioen Jon Sarasua Euskararen Gogoetagunea**

**egitasmoaren koordinatzaileak. Zer jauzi emateko prest zaudete euskalduntasunean sakontzeko eta elgoibartarrak komunitate moduan ahalduntzeko? Zer, herri-kohesioa indartzeko?**

Legealdi honetan Euskara Sustatzeko Ekintza Plana berritzeko aukeraren aurrean, EH Bildutik egindako proposamenak ez dira kontuan hartu. Euskararen normalizaziorako, herri dinamika osoa indartu behar da. Planteatu ditugun erronken artean, harrera plana, proiektuei neurgailuak ezartzea eta aurrekoak ebaluatzea, euskaltegietan baldintza berberetan ikasteko aukerak bermatzea, eta transmisiorako gako direnekin lanketa garatzea daude. Udal, herritar eta eragile desberdinei baliabide nahikoak eskaini eta Udaletik harago doazen lankidetzak esparruak bermatu beharra ikusten dut.

**Zer eskaintza dakar zure alderdiak Elgoibar herri abegikorragoa egiteko?**

Herritar guztiengan eta etorkizunean pentsatuz kudeatu behar ditugu baliabideak. Gutako bakoitza egoera sozial eta ekonomiko desberdinetatik abiatzen garelako kontuan hartuta, errentagarritasun sozialaren balioa kontuan hartu behar dugu, termino ekonomiko hutsetan oinarritu beharrean. Aberastasunaren banaketaz hitz egiterakoan, egoera zaurgarriago batean dauden pertsonen aukerak errazteak herritar guztion ongizatea hobetuko du. Azken urteetako krisialdien ondorioz zailtasun ekonomikoak dituzten familia unitateen kopuruak gora egin du, eta udal zerga sistemak kontuan hartu behar du errealtate hori, zerga eta hobarrietan progresibitateak aplikatuz, errenta maila apalagoa dutenek gutxiago ordain dezaten.

**Erakundeen eta alderdi politikoaren aurkako sumindura, etsipena eta frustrazioa orokortu direla diote ikerketek eta alderdietatik kanpo politika egiteko hautua zabaltzen ari dela. Zuen posiziotik zer gogoeta egiten duzue honen inguruan?**

Gazteen desafekzioa martxan jartzen diren politiketatik etorri daiteke, non askatasun eskubidea mugatzen duten legeak onartzeaz gain, arrakala ekonomikoa areagotzen duten politikak aplikatzen diren. Emantzipazioaren atalean etxebizitza sozialak sortzeari edo alokairuei tope bat jartzeari oztupoak jartzen zaizkienean edo prekarietate baldintzetan lan egitea ahalbidetzen duten neurriak onartzen direnean, normala da politika formaletik urrun sentitzea. Hala ere, kontuan

hartu behar dugu orain ditugun eskubide guztiak borroka eta antolatze mugimenduen bitartez lortu ditugula, eta gazteen espazio naturalak bermatzea eta errespetatzea garrantzitsua dela. Herritarren parte-hartzea erraztea ere lagungarria izango da frustrazioa murrizteko.

**Pandemiak erakutsi du egoera zaurgarrietan haurrak eta adin nagusikoak direla ahaztuenak, ez direlako parametro produktibistetan txertatzen. Zer duzue eskuartearen zaurgarriago izan ez daitezten?**

Haurrak eta adin nagusikoak produkzio lanetan aritu ez arren, beraien beharrei lotutako zerbitzuak sistema produktiboarekin loturik daude, haien beharrek beste batzuk negoziatzea egiten dutelako. Haurren aisaldi eskaintza zaintzara bideratuta dagoela jakinda, erakunde publikoetatik arrakala horiek saihestu behar ditugu. Horretarako haur eta gazteen aurrekontua bikoiztu egingo dugu. Adin nagusikoentzat, ohiko erresidentzia eredutik harago joaten ahaleginduko gara eta gobernatzen ditugun herri batzuetan, adibidez Usurbilen eta Hernanin, egin diren aurrerapausoak eredu izango dira guretzat.

**Nola definituko zenuke gazteekin duzun harremana? Zer duzue haiei eskaintzeko?**

Orokorrean prestakuntza handia duten arren, etxebizitzaren prezioen eta interesen igoerak eta enplegu prekarioek etxebizitza alokatzea eragozten diete gazteei. Etxebizitza lege berriak ahalbidetuko du udalek ere etxebizitza politiketan sakontzea, egungo eskaintza handitu eta emantzipaziorako aukera berriak gehituz. EH Bildutik gure gazteen protagonismoa biderkatuko dugu, laneratze eta etxebizitza aukeretan laguntzak, orientazio zerbitzuak, kultur eskaintzarako eredu berriak eta kirol instalakuntzen erabilera erraztuz.

**Ekonomiaren eta enpleguaren arloetan zertan sakonduko duzue? Zein da zuen proiektu izarra?**

Industria arloan Elgoibarrek zuen pisua galdutako da, eta aldiz, gizarte arloko zerbitzuek geroz eta pisu handiagoa dute ekonomian. Baina gizarte arloko lanpostuak prekarizatuak dira kasu askotan. Industria arloan Debabarrena sustatzeko Legebiltzarrean aztertzen ari garen Ponentzian zein Debegesan, industriarentzako zerbitzu aurreratuen sektore bat gure eskualdean ezartzeko plan bat bultzatu dugu, eta udal, hezkuntza, sindikatu eta sektore ekonomiko desberdinetako enpresen arteko



beharrak uztartuko dituen foro sozioekonomiko bat sortzea ere nahi dugu.

### **Bizitzak erdiguneri jarri behar direla babestu duzue. Zer ulertzen duzu bizitzak erdigunean jartzearekin?**

Eraikinek soilik ez dituzte bermatzen kalitatezko zerbitzuak. 24 orduko anbulatorio zerbitzua gehiegizkoa dela esatea errentagarritasun ekonomikoa pertsonen ongizatearen gainetik jartzea da, eta zahar egoitza berriaren kudeaketa enpresa pribatu bati ematea gure nagusien zaintza beharrak bigarren mailan jartzea. Zaintza kateek eusten diete gure familiei: etxekoandreak, adinekoen zainzaileak, etxeetako garbitzaileak, familia medikuak... Zainzaileak gehiago ezin duenean, aurreko guztia erortzen da. Egungo sistema horren eraldaketa herritik eta ikuspegi komunitario batetik hastea proposatzen dugu.

### **Herritarren parte-hartzea sustatzeko asmoak alderdi guztien programetan jasotzen dira urtero. Nola ulertzen duzu herritarren parte-hartzea?**

Herritarrek urrun sentitzen dute Udala. Udalak gure herritarrek larrialdi zerbitzua berreskuratzeko egindako eskariari erantzun ordez eraikin berri bat egitea erabakitzeak ez dio herri honen oinarriko zerbitzu beharrei erantzun. Elgoibarrek, EH Bilduren inizatibaz onartu zen herritarren parte-hartzeari buruzko araudi bat duen arren, garatzea eskatu dugun aldiro ezetza eman zaigu. Pedro Mugurutzako eskolen kasuan, eraikinarren bideragarritasun azterketa egin eta herritarrek azpiegitura horren etorkizuna erabakitzeke aukerari ere ezetz esan zioten. Herritarren bizkar hartutako erabakiak legezko izan daitezkeen arren, legimitatea kentzen diete instituzioari. Guk parte hartzeko aukerak biderkatu egingo ditugu.

### **Zerk egiten du herri bat bizigarri? Zer proposatzen duzue?**

Herriko zerbitzuak herritar guztiengan pentsatuak egon behar dira. Informazioari mugak jartzeak arazoak bakarrik sortzen ditu. Gure herria heldua da, eta behar desberdinak gure herriaren planifikazioan txertatzea aberastasun ezaugarri dira. Diru publikoak eraikitako azpiegiturretan, Mintxetako igerilekuetan, edo ur txorroetan adibidez, herritar guztiok gozatzeko aukera eman beharko genuke, bakoitzaren ahal ekonomikoa alde batera utzita. Oinarriko zerbitzuak, irisgarritasun eta mugikortasun aukerak bermatzea, natur gunez gozatzeko eskaintza anitzak... herri bizigarriago batekin lotura zuzena dute.

## **MOTZ-MOTZEAN**

### **Leku bat?**

Karakate-Irukutzeta gaina.

### **Zerk ateratzen zaitu zure onetik?**

Lanak bukatu gabe gelditzeak eta arazoitu gabeko aitzakiek.

### **Zerk kentzen dizu loa?**

Haserre momentu batek uzten didan sentsazioak.

### **Eguneroko poz txikiak?**

Mendira joatea eta barre eginarazten didaten momentuak.

### **Zer dohai edo bertute duzula uste duzu? Eta, zer akats?**

Horren erantzuna besteen esku dagoela iruditzen zait.

### **Besteengandik zer baloratzen duzu gehien?**

Nortasuna, zintzotasuna eta apaltasuna.

### **Liburu bat? Kantu bat? Film bat...**

Maddi Ane Txoperenaren *Ez erran inori*; Olaia Inziarteren *Beha klasekoa* abestia eta emakume talde batek boto eskubidea lortzeari buruzko *Sufragistas* filma.

### **Zerekin egiten duzu amets?**

Euskal Herriaren independentzia eta Elgoibarren aldaketa lortzeko suposatuko lukeen guztiarekin.

### **Nola begiratzen diozu munduari?**

Itxaropenez.

### **Zertan zara pribilegiatu?**

Inguruan ditudan pertsona bakoitzak gauza desberdinak eskaintzen dizkit, eta horiek denak gertu edukitzeak zorioneko egiten nau.





*“Nagusiki nahi dut gazteak Eibarrera, Ermura edo Donostiara ez joatea etorkizun hobea izateko”*

# ARIANA NOGALES

PSE-EEren Elgoibarko alkategaia

**2020ko urrian sartu zen Elgoibarko Udalbatzan, Fernando Suarezzen lekuan, eta bera aukeratu du alderdiak alkate izateko hautagai. Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua ikasi du Ariana Nogalesek (Elgoibar, 1994), Aholkularitza eta Kontsultoretza juridiko-laboralean masterra du eta giza baliabideetako teknikari gisa lan egiten du.**

## **Alkategai izateko proposatu zaitu alderdiak. Zerk bultzatu zaitu baietza ematera?**

2020ko urritik, Elgoibarko Udalean PSE-EEko zinegotzi izateko Fernando Suarezzen ordeko sartu nintzenetik, elgoibartarren bizitza hobetzeko lan egiten saiatzen ari naiz. Horregatik, alderdiak Elgoibarko PSE-EEK alkatetatzarako hautagai izateko proposatu nindueanean, oso harro sentitu nintzen, eta oso esker oneko hartu dut ardura handi hori neure gain.

## **Zergatik eman beharko genizuke botoa?**

Sozialista elgoibartarrak funtsezkoak izan gara lau urteotan herritarrentzat hain beharrezkoa izan den udal-egonkortasuna lortzeko. Covid-19aren krisiaren ondorioz, urte hauek oso zailak izan dira guztiontzat eta aparteko neurri batzuk hartu behar izan ditugu. Gainera, Ukrainako gerraren ondorioz, lehengaien prezioek hainbeste egin dute gora, ezen Udalak lehentasunak jarri behar izan dituen.

## **Zure alderdiak duela lau urte hainbat proiektu aurkeztu zituen legegintzaldi honetan egitekoak zirenak. Proiektu horien errepassoa eginda, zein mailatan bete direla esango zenuke?**

Badakigu koalizio-gobernu batean parte hartzen hastean bi alderdiok jarri behar izan ditugula marra gorri batzuk, baina beste zenbait marra arindu behar izan ditugu, adostasunera iristeko, nagusiki, Elgoibarrentzako onura lortzeko eta, gainera, gobernuko bi kideentzat gogobetegarria izateko. Uste dugu urtero udal-aurrekontuetan ekarpen ugari eta onak sartu ditugula, besteak beste, King Kong-en zubi berriaren proiektua, hiri-autobusaren zerbitzua

jartzea, irisgarritasuna hobetzeko igogailu berriak martxan jartzea, etab.

## **Zeintzuk dira Elgoibarrek dituen hiru gabezia handienak, eta, kontrara, zein indargune ditu?**

Gure ustez, Elgoibarren honako hauek dira arazo nagusiak: osasuna, gazteek etxebizitzak eskuragarri ez izatea eta enplegu-aukeren sorrera. Indargune gisa aipatuko nuke Elgoibar udalerrri irisgarri bilakatzen ari dela herritarrentzat, hiri-mantentzea sendotzearen aldeko apustua egiten ari dela, bai eta kulturaren aldeko apustua ere.

## **Zein dira datorren legealdirako dituzuen hiru proiektu garrantzitsuenak?**

Gehiago dira hurrengo legealdian landuko ditugun proiektuak, baina hiru aipatu behar badituzte: gogor lan egingo dugu anbulatorio berria, adinekoen etorkizuneko egoitza eta King Kongen zubi berria errealitate bilakatzeko 2027a baino lehen.

## **‘Euskalgintzan eta kulturgintzan krisian gaude’, zioen Jon Sarasua Euskararen Gogoetagusnea egitasmoaren koordinatzaileak. Zioen ez dauzkagula beste hamar urte despistatuta egoteko. Zer jauzi emateko prest zaudete euskalduntasunean sakontzeko eta elgoibartarrak komunitate moduan ahalduentzeko? Zer, herri-kohesioa indartzeko?**

Askok aurreiritziak dituzte eta uste dute PSE-EEk ez duela apustu argia egiten erakundeetan euskara sustatzeko, baina ez da egia. Lasarte-Orian, esaterako, PSE-EEK gobernatzen du, eta erreferente bat da arlo horretan Euskadi osoan. Euskaraldiaren hazia, Ahozibiziren eta Belarripresten irudiak, Udaltop jardunaldiak... Ekimen horiek sozialistek gobernatzen duten udalerrri batean sortu dira. Eta hori da Elgoibarren erreferentetzat hartu behar duguna.

## **Zer eskaintza dakar zure alderdiak Elgoibar herri abegikorragoa egiteko?**

Elgoibarko sozialistok beti egin dugu guztiontzako udalerrri inklusiboagoa sortzearen aldeko apustua; horregatik tematu gara hainbeste legealdi honetan irisgarritasunean. Hiri-autobusaren zerbitzua ezartzea lortu genuen, EAJk kendu nahi zuenean; igogailuak eraikitzearen aldeko apustua egin genuen; King Kongen zubia irisgarria izateko proiektua idazteko eskatu genuen; desgaitasuna duten pertsonetara egokitzen diren haur-jolasak eskatu genituen... Eta, legealdi honetan, halako



neurri gehiagoren aldeko apustua egiten jarraituko dugu, besteak beste: zebrabide irisgarriak eta egokituak, eraikin publikoetan piktogramak jartzea, irisgarritasun unibertsala zailduko ez duen hiri-mantentzea eta -altzariak.

**Gizartean, eta bereziki gazteen artean, erakundeen eta alderdi politikoen aurkako sumindura, etsipena eta frustrazioa orokortu egin dira eta alderdietatik kanpo politika egiteko hautua zabaltzen ari da. Zuen posiziotik zer gogoeta egiten duzue honen inguruan?**

Erabat ulerkorra da gazteak politikatik urrunduta sentitzea eta, alderantziz, GKEetan, elkarteetan edo bestelako entitateetan parte hartetik hurbilago. Alderdi politikook onartu behar dugu urruntze hori eragin dugula, eta gaur egun ezin dugula pentsatu gazteak hurbilduko direnik gugana; alderdiotan gaudenok joan behar dugu haiengana, bai eta erakunde publikoetan ari garenok ere, aurrez aurre ezagutzeko zer eskari eta behar dituzten.

Elgoibarko PSE-EEren iritziz, udal-politikak prestatzeko orduan politika horien hartzailak izan behar ditugu kontuan. Eta, gazteen kasuan, parte hartzeko programen bidez lortu beharko dugu; programa horietan haiek proposatu beharko dituzte ekimenak, proposamenak edo proiektuak, partaide sentitzeke.

**Egoera zaurgarrietan haurrak eta adin nagusikoak dira ahaztuenak, ez direlako parametro produktibistetan txertatzen. Zer duzue eskuartean direnak baino zaurgarriago izan ez daitezen?**

Sozialiston ustez, adinekoak babestu beharreko kolektibo garrantzitsua dira; izan ere, haiek atera dute Elgoibar aurrera, eta, orain, erakundeek haiek ez ahaztea merezi dute. Adinekoen egoitza berria ahalik eta lasterren bilakatu behar dugu errealitate, gure adinekoak Elgoibarren geratu ahal izateko eta inguruko beste egoitza batzuetara plaza bila joan behar ez izateko. Udal-mailako politika sozialen aldeko apustua egin behar dugu eta, horretarako, etxeko laguntzen eskari guztiak beteko dituzten partida ekonomikoak sustatu behar ditugu; izan ere, adineko askok haien etxeetan geratu nahi dute. Edo eguneko zentroa, okupatuta egon ahal izateko.

**Nola definituko zenuke gazteekin duzen harremana? Zer duzue haiei eskaintzeko?**

Lehen aldia da PSE-EEK emakumezko

*"Gure gazteentzako etxebizitza eskuragarriak lortzeak lehentasunezkoa izan behar du; hori dela eta, nire asmoa da Elgoibar tentsio handiko eremu aitortzea"*

alkategai hain gaztea duela, eta, ondorioz, zuzenean jakin dezaket gazte elgoibartarrok zer behar izan ditzakegun. Nagusiki nahi dut gazteak Eibarrera, Ermura edo Donostiara ez joatea etorkizun hobea eduki ahal izateko.

Gure gazteentzako etxebizitza eskuragarriak lortzeak lehentasunezkoa izan behar du; hori dela eta, nire asmoa da Elgoibar tentsio handiko eremu aitortzea, Etxebizitza Lege berriari esker, alokairuen prezioak kontrolatu ahal izateko. Gure gazteei alokairuak dauzkaten diru-sarreraren arabera ordaintzen lagunduko dien dirulaguntza lerro baten aldeko apustu irmoa egingo dut eta bultzatu Jaurlaritzarekin alokairu sozialeko etxebizitzaren eraikuntza negoziatzea. Baina gure udalerrian enpresa berriak finka daitezzen ere egingo dut lan, gazteentzako enplegu-aukera gehiago sortzeko, eta, horretarako, sorrera suspertuko duten zerga-neurriak hartuko ditugu, negozio berriak irekitzeko dirulaguntzak eman eta herriko gazte ekintzaileei dirulaguntzak eman.

**Ekonomiaren eta enpleguaren arloetan zertan sakonduko duzue? Zein izango da zuen proiektu izarra?**

Ezin gara konformistak izan eta pentsatu Debegesa Eskualdeko Garapen Agentzia izango dela gure udalerrian dugun enplegu-problematikari irtenbidea emateko arduradun bakarra. Lehen esan dudanez, Udalak ere bere eskumenekoak diren neurriak hartu behar ditu, enplegu-aukera handiagoak lortzeko. Aurreko galderan aipatutako neurriez gainera, tokiko saltokietarako laguntza-lerroak ere sortu beharko liriateke, ez soilik establezimendu berriak sortzeko, baita gaur egun daudenek ez ixteko ere. Gure merkatarien prestakuntzaren aldeko apustua egin eta saltokietan lehiakorrak izateko egin behar dituzten inbertsioetan laguntzearen aldekoak, Elgoibarren Amazonekin,

Aliexpressekin, Sheinekin eta abarrekin lehian jardun dezakeen online merkataritza sortzearen aldekoak... gara.

### **Bizitzak erdigunean jarri behar direla babestu duzue. Zer ulertzen duzu bizitzak erdigunean jartzearekin?**

PSE-EEkook uste dugu alde batera utzi behar ditugula eztabaida identitarioak, ez baikaramatzate inora, eta lehenasuna Elgoibarko herritarrek izan behar dutela. Haien guztien bizi-kalitatea hobetzeak izan behar du udal-hauteskundeen ondoren eratuko den udalbatza berrian ordezkariak dugun alderdi politiko guztien ahaleginaren erdigune. Horrek izan behar du udal-politika guztien erdigune.

### **Herritarren parte-hartzea sustatzeko asmoak alderdi guztien programetan jasotzen dira urtero. Nola ulertzen duzu herritarren parte-hartzea?**

Botoa baliatzea da demokrazian dagoen herritarren parte-hartze handiena; hori dela eta, elgoibartar guztiei egin nahi diegu dei, hurrengo maiatzaren 28an botoa eman dezaten. Bigarrenik, Elgoibarko PSE-EEren iritziz, ezin da gobernatu jendeari bizkarra emanda. Hori dela eta, Herritarren Parte Hartzeari buruzko Araudiak eta hartan aurreikusten diren organoek duten ahalmen guztia garatzearen aldeko apustua egiten dugu. Bai eta urtero udal-aurrekontuak prestatzean herritarrek parte-hartze zuzena izan dezaten ere.

### **Zerk egiten du herri bat bizigarri?**

Etorkizunera begiratu behar dugu. Ezin dugu soilik 2023-2027ko Elgoibar izan ikuspuntuan; ari gara, dagoeneko, 2050erako Elgoibarrerako oinarriak ezartzen, oso urrun dagoela pentsatu arren. Gure seme-alabei eta ilobei utziko diegun Elgoibarren pentsatu behar dugu. Horretarako, Udal Plan Estrategiko bat prestatu behar dugu, eta hori herritarrek garatu behar dute, adostua izan behar du eta udalerraren behar nagusietan oinarritutakoa. Izan ere, udalerrri bat orain bizitzeko egoki egingo duen behar jakin batzuei erantzuteaz gainera, arduratsuak izan behar dugu eta Elgoibar belaunaldi berrientzat udalerrri hobea izan dadin lortu behar dugu.

## **MOTZ-MOTZEAN**

### **Leku bat?**

Elgoibarko plaza.

### **Zerk ateratzen zaitu zure onetik?**

Gazteek etxebizitza eskuratzeko duten zailtasunek.

### **Zerk kentzen dizu loa?**

Gaizki pasatzen ari den eta behar-beharrezko ondasunak lortzeko arazoak dituen jendea dagoela jakiteak.

### **Zein dira zure eguneroko poz txikiak?**

Lanegun batean, lana bukatu eta Maltzagako bidegorrian korrika egitea.

### **Zer bertute duzula uste duzu?**

#### **Eta, zer akats?**

Bertutea, enpatizatzen badakidala. Akatsa burugogorra naizela eta gauza bat nik nahi bezala gelditu arte ez dudala etsitzen.

### **Besteengandik zer baloratzen duzu gehien?**

Zintzotasuna.

### **Liburu bat? Kantu bat? Film bat?**

Liburua: *El tiempo entre costuras*. Kantu bat: *Abuela Maitea*. Film bat: *Gladiator*.

### **Zerekin egiten duzu amets?**

Gizarte bidezkoago batekin, non guztiok izango dugun gizarte-ongizateko gutxieneko maila bat, arraza, sexua, etnia, adina, erlijioa edo sexu-identitatea edozein dela ere.

### **Nola begiratzen diozu munduari?**

Ikuspegi feministatik. Izan ere, egunero entzuten ditugu genero-motiboengatik hilketa kasuak, eta jarraitzen du emakume eta neskatuen aurkako sexu-indarkeriak egoten, soldata arrakala dago, kristalezko sabaia...

### **Zertan zara pribilegiatu?**

Elgoibarren bizitzeak egiten nau pribilegiatu, funtsezko zerbitzu publiko guztiak ditugulako.





*“Herri berdeagoa, jasangarriagoa, eta jendearen beharrei erantzungo diena egin nahi dugu Elgoibar”*



## EVARISTO RODRIGUEZ

Podemos-Ahal Duguren Elgoibarko alkategaia

Ahal Dugu-Podemosen hautagaia da Elgoibarko alkate izateko. Maisutza Industrialia ikasitakoa da Evaristo Rodriguez (Elgoibar, 1966) Mekan, eta dio politika neoliberalen kontra egiteko sartu zela politikagintzan. Lana, familia-ardurak eta politikagintza espeleologiarako afizioarekin uztartzen ditu. Morkaikoko Leizarpe espeleologia taldeko kide da.

### Alkategai izateko proposatu zaitu alderdiak. Zerk bultzatu zaitu baietza ematera?

Zinegotzi gisa azken lau urte hauetako esperientzia dudalako, eta Euskadiko kideekin ikasi dudanagatik. Hori kontuan hartuta, neu naiz Elgoibarrek behar duen aldaketa ongien lideratu ahal duena.

### Zergatik eman beharko genizuke botoa?

Botoa guri emanda, Elgoibarrek aspalditik konpontzeke dituen eta gainerako alderdiek gutxiesten dituzten arazo ugariak behingoz konpontzearen alde egingo duzuelako. Gainera, boto horrekin ahalbidetuko duzue alde zuzenarekin prestatzea etorkizunean izango ditugun erronka ugarietarako; kontuan izan arazo horiek oso kaltegarriak izan daitezkeela gure seme-alabentzat, ez bagara berehala martxan jartzen soluzioak bilatzeko.

### Zure alderdiak duela lau urte hainbat proiektu aurkeztu zituen legegintzaldi honetan egitekoak zirenak. Proiektu horien errepasoa eginda, zein mailatan bete direla esango zenuke?

Hasierako programari dagokionez, programaren %23 inguru garatu dugu. Aurkeztutako ekimenen %48 aurrera atera ziren eta %25 garatu ziren. Ez dago batere gaizki oposizioan dagoen zinegotzi bakarra naizela kontuan hartuta. Beste alderdiek lortu dutena ikusita, Elkarrekin Podemos aktiboena dela esango nuke. Imajinatu zer izan zitekeen gobernuan izan bagina!

### Zeintzuk dira Elgoibarrek dituen hiru gabezia handienak, eta, kontrara, zein indargune ditu?

Gabeziak: alokairuko etxebizitzaren, osasunaren eta kalitatezko lanaren falta. Arazoak nonahi ikusten ditut. Indarguneak: elgoibartarrok zerbaitetan indartsuak bagara, uste dut lanean garela. Lan egiten eta gauzak ondo egiten dakigu, eta hori ez da gutxi.

### Zein dira datorren legegintzarako dituzten hiru proiektu garrantzitsuenak?

Denak dira garrantzitsuak, baina urduriak hauek dira: babestutako eta alokairuko etxebizitzak sustatzea, lanpostu duinak sortzea guztion enplegugarritasunerako eta behar ditugun osasun prestazioak hobetzea.

### 'Euskalgintzan eta kulturagintzan krisian gauden', zioen Jon Sarasua Euskararen Gogoetagusia egitasmoaren koordinatzaileak Elgoibarren; zioen ez dauzkagula beste hamar urte despistatuta egoteko; jauziak eman behar direla. Zer jauzi emateko prest zaudete euskalduntasunean sakontzeko eta elgoibartarrak komunitate moduan ahalduzko? Zer, herri-kohesioa indartzeko?

Alde horretatik, esan beharra dago gure apustua argia dela euskararen doako irakaskuntzan eta euskararen erabilera esparru guztietan sustatzean... Sormenean ere bai... Gure herrian kultura sortzera animatzen duten politikak garatu behar ditugu. Horretarako, espazioak eta dirua behar dira. Kultur Etxea eta Aita Agirre ez dira nahikoa. Elkarrekin Podemosek Pedro Mugurutzaren eskola ez eraistea proposatu du, eta erabilera hori ematea ere bai. Dirua ez da arazoa izango horretarako.

*"Gure herrian  
kultura sortzera animatzen duten  
politikak garatu behar ditugu.  
Horretarako, espazioak  
eta dirua behar dira"*

### **Zer eskaintza dakar zure alderdiak Elgoibar herri abegikorragoa egiteko?**

Herri berdeagoa, jasangarriagoa, jendearen beharrei erantzungo diena eta doako garraioa duena egin nahi dugu Elgoibar. Adibide bat: gero eta adineko jende gehiago ikusten dut lorategietan pixa egiten. Hain zaila al da haiei kasu egitea eta kalitatezko eta seinaleztatutako pixatoki gehiago jartzea? Beste adibide bat zabor bilketa selektiboarena da, baina ez dugu zakarrontzi egokirik. Eta horixe gertatzen da beste kontu askorekin: berdegune gehiago behar dira, aparkalekuen arazoa daukagu, estalitako gune gehiago behar dira, trenak eragindako zarata... Elgoibartarrek egindako proposamen zerrenda luze-luzea dut.

### **Gizartean, eta bereziki gazteen artean, erakundeen eta alderdi politikoaren aurkako sumindura, etsipena eta frustrazioa orokortu egin direla diote azken ikerketek eta alderdietatik kanpo politika egiteko hautua zabaltzen ari dela. Zuen posiziotik zer gogoeta egiten duzue honen inguruan?**

Hortik dator Podemos Ahal Dugu, suminetik, *Nahikoa da* esatetik, Mareetatik eta M15etik. Geu gara sumindu ziren haiek, alderdi bat sortu eta politika egin behar izan dugunak. Adineko pertsonak zein gazteak betiko alderdi politikoez nazkatuta daude, hain zuzen beren zibilborrari begiratzen diotelako, negozioak egiten dituztelako eta ez dutelako jendearen alde begiratzen. Suminduta daudenek osatzen dute Podemos Ahal Dugu, gauzak aldatu, ohiko alderdiak pikutara bidali eta Udala gardentasun osoz eta herritarren partaidetzaz bete nahi duten horietan. Ez dugu soilik botoa ematea nahi; herritarrak etorri eta parte har dezaten nahi dugu.

### **Pandemiak erakutsi du egoera zaurgarrietan haurrak eta adin nagusikoak direla ahaztuenak, ez direlako parametro produktibistetan txertatzen. Zer duzue eskuartean direnak baino zaurgarriago izan ez daitezten?**

Pandemiak erakutsi du egungo ereduak gabezia handiak dituela. Zerbitzu publikoen kudeaketa pribatua EAJK argi bultzatzen duen zerbait da: arazoak baino ez ditu ekartzen herritarrentzat, batzuek poltsikoak betetzen dituzten bitartean. Osasuna eta

*"Osasuna eta zaintza zerbitzu publiko eta zuzenen bidez kudeatzen direnean eta tartean enpresa pribaturik ez dagoenean bakarrik bermatzen da guzti-guztiok babestuta egotea"*

zaintza zerbitzu publiko eta zuzenen bidez kudeatzen direnean eta tartean enpresa pribaturik ez dagoenean bermatzen da bakarrik guzti-guztiok, adina edo bestelako baldintzak kontuan hartu gabe, erabat babestuta egotea. Eta horretan, Udalak lan handia du egiteko.

### **Nola definituko zenuke gazteekin duzun harremana? Zer duzue haiei eskaintzeko?**

Urte asko dira gazteek ematen ez dizkiegun espazioak eta laguntzak bilatzen dituztela, eta hori da Elkarrekin Podemosek eskaintzen dieguna, hain zuzen ere, dituzten ideiak eta proiektuak garatu ahal izateko espazioak eta laguntzak. Gazteei lagunduko diegu, gazteen zentro autogestionatueta modu autonomoan antola daitezten.

### **Ekonomiaren eta enpleguaren arloetan zertan sakonduko duzue? Zein izango da zuen proiektu izarra?**

Legegintzaldi honetan, lana eta familia bateragarri egiteko planteatu genuen ekimena garatzen hasi zen, baina partzialki bakarrik, egungo gobernuak gutxi garatu baitu. Tokiko saltokien egoera eta haiantzako babesa hobetu behar dira, eta kalitatezko enplegu egonkorra eta hurbila sustatu. Halaber, lana hobeto banatu behar da, eta langabezia murriztu. Horretarako, irekitzen diren lan-aukera berriak bultzatu behar dira, batez ere jasangarritasunaren, energia berriztagarrien, telelanaren, ITaren eta I+Gren gaitan.

### **Bizitzak erdiguneri jarri behar direla babestu duzue. Zer ulertzen duzu bizitzak erdigunean jartzearekin?**

Termino ekonomikoetan soilik pentsatzen

dutenen aurrean, Podemosen termino sozialetan pentsatzen dugu. Bizitza erdian jartzea esaten dugunean guztion eskubideak bermatu behar direla esan nahi dugu, salbuespenik gabe. Alegia, etxebizitzarako, lanerako, osasunerako, hezkuntzarako eta bidezko zaintza izateko eskubidea izan behar dugula guztiok. Eta hori guztia mugikortasun jasangarriarekin, bidezko fiskalitatearekin eta proposamen feminista eta ekologiko askorekin batera.

**Herritarren parte-hartzea sustatzeko asmoak alderdi guztien programetan jasotzen dira urtero. Nola ulertzen duzu herritarren parte-hartzea?**

Legealdi honetan Osoko Bilkurak grabatzea eta ematea lortu dugu, baina askoz gehiago behar da udal guztiz gardena eta eskuragarria izateko. Herritarrek parte hartu ahal izango duten batzorde publikoak behar dira, elgoibartarrek osoko bilkuretan ahots propioa izateko herritarrentzako eserlekuak eta aurrekontuak herritarren partaidetzaren bidez zehaztea. Herritarrek udal-jardueretan zuzenean parte hartzeko eskubidea dute eta.

**Zerk egiten du herri bat bizigarri? Zer proposatzen duzue?**

Ukuilurik kaskarrean ere bizi daiteke. Orain arte bizi izan dugu zementuaren eredia, zeina bizi-kalitate eskaseko eredia den beste ezaugarri batzuekin batera ez badoa. Herri berdeagoa behar dugu. Laster aterako da zuhaitzak babesteko eta kudeatzeko ordenantza. Elkarrekin Podemosen ekimena da hori, eta baita Elgoibarren zehar jarritako desfibriladoreena eta ibaia garbitzeko ekimenena ere. Baina hobekuntzak behar dira oraindik ere, hala nola pixatokiak jartzea, lorategiak eta gune berdeak gozatzeko, ibaien garbiketa askoz sakonago egin behar da, bidegorria Debaraino (ez bakarrik Mendaroraino), 15 minutuko filosofia, animaliak babesteko ordenantza garatzea, doako garraioa, ekonomia zirkularra ezartzea, osasun mentaleko plana, bilatzen ez den bakardadeari aurre egiteko plana, espazio publikoak ikuspegi feministarekin eta genero-irizpideekin diseinatzea, eta abar. Hainbeste gauza daude egiteko! Eta hori guztia urgentea da.

**MOTZ-MOTZEAN**

**Leku bat?**

Mendaroko Aitzbeltz. Ezaguna eta aldi berean ezezaguna den lekua, eta zeresan handia emango duena.

**Zerk ateratzen zaitu zure onetik?**

Utzikeriak eta anabasak

**Zerk kentzen dizu loa?**

Luzeegiak diren siestek. Bestela, primeran egiten dut lo.

**Zein dira zure eguneroko poz txikiak?**

Seme-alabak hazten ikustea.

**Zer bertute duzula uste duzu? Zer, akats?**

Bertutea: jarraikortasuna. Akatsa: fidakorregia naizela.

**Besteengandik zer baloratzen duzu gehien?**

Egizaletasuna.

**Liburu bat? Kantu bat? Film bat?**

Liburua: George Orwellen *1984*. Kantua: Pink Floyden *Shine on your crazy diamond*. Filma: Ridley Scotten *Blade Runner*.

**Zerekin egiten duzu amets?**

Mundu hobe batekin, eta ez dut esaten esateagatik.

**Nola begiratzen diozu munduari?**

Denboraren joanaren ikuspegia oso kontuan hartuta.

**Zertan zara pribilegiatu?**

Egin nahi dudana egin ahal dudalako sentitzen naiz pribilegiatu.





## Su Ta Gar, ETS, Neomak eta Tapia eta Leturia, sanbartolomeetako kontzertu nagusiak

**A**buztuaren 23tik 28ra ospatuko dira aurten sanbartolomeak, eta Elgoibarko Udalak aurreratu ditu jaietako kontzertu nagusiak: Su Ta Gar (Gazteen Egunean), En Tol Sarmiento (Bezperan), Neomak (Baserritarren Egunean) eta Tapia eta Leturia (San Bartolome Egunean) arituko dira, Kalegoen plazan. Talde horien aurretik, EME elkarteko musika taldeek joko dute: Brilet, Ellie Jensen eta Muzak taldeek. Sokamuturra, berriz, hiru egunetan egingo



dela aurreratu dute Udaletik: Txiki Egunean, Jubilatuen Egunean eta Gazteen Egunean.

### Elgoibarko dantzariak auresku txapelketako finalean izan dira



Auresku txapelketako finalak jokatu zituzten joan zen asteburuan Erreterian eta Legazpin, eta Inazio Bereziartua Dantza Eskolako hiru dantzari hartu zuten parte: Uxue Cabrerak, Unax Ansolak eta Irene Toledanok. Dantza Eskolako arduradunek esan dutenez, hirurek maila ona eman zuten, eta eurentzako esperientzia berri bat izan da. Gaur arratsaldean, bestalde, Bakarlarrien jaialdia egingo dute Kalegoen plazan, 19:30ean, eta bertan txapelketetan dabiltzan dantzariak ikusteko aukera izango da. Guztira, 11 eta 19 urte arteko 14 dantzari hartuko dute parte.

### Irakasle lanpostuak betetzeko oposizioak, Debabe Udal Euskaltegian

Debabe Udal Euskaltegiak jakinarazi du bi irakasle lanpostu betetzeko oposizioak egingo dituela. Izena emateko azken eguna maiatzaren 30a izango da. Informazio gehiagorako: [www.debabe.eus](http://www.debabe.eus)

### Herri Urrats ekimenari laguntzeko deia egin dute

Euriteak sortutako uholdeen ondorioz, aurten ezin izan dute Zuberoako, Nafarroa Behereko eta Lapurdiko ikastolen aldeko jaiak ospatu Senpereko lakuaren inguruan, eta jaiak formato txikiago batean egin behar izan dute. Horrek milaka euroko galera ekonomikoa ekarri dio Seaskari, eta arduradunek jendartiari dei egin diote, Ipar Euskal Herrian euskara ikasteko hautua egiten duen proiektuari aurrera egiten laguntzeko. Ekarpene ekonomikoak egiteko bideak zabaldu dituzte:

- [herriurrats.eus/denda](http://herriurrats.eus/denda) web orrialdean sartu, eta materiala erosita.
- Bizum bidez (Hego Euskal Herrian soilik). Dohaintzak egiteko atalera sartu, bilatzailean 'HERRI URRATS' idatzi eta ekarpen ekonomikoa eginda.

Kontu korrante hauetan dirua sartuta:

- Caisse d'épargne: FR76 1333 5000 4008 9397 1116 819
- Laboral Kutxa: ES87 3035 0059 8205 9073 1197
- Kutxabank: ES98 2095 5045 8710 6117 7332
- Crédit Mutuel: FR76 1027 8023 8500 0201 4340 107

## 'Bizitzaren maskaradak' antzezlanaren aurkeztuko du Taupadak maiatzaren 26an

Taupada antzerki taldeak *Bizitzaren maskaradak* antzezlanaren estreinatuko du datorren barikuan, Herriko Antzokian. Bederatzi mikroantzerki bildu dituzte antzezlan honetan, eta pertsonaiek egoera desberdinak biziko dituzte: maitasun eta askatasun eza, gaizki ulertuak, bakardadea, maitasun debekatuak, maltzurkeria, bikoteen arteko arazoak eta ezkutuko desioak... Istorio guztiak kaleidoskopio batean bildu dituzte. Edurne Lasak zuzendu du obra, eta Jose Mari Larrañagak egin ditu teknikari lanak. Aktore lanetan, berriz, hauek arituko dira: Dani Zelaia, David Rodriguez, Edu Aysta, Gorka Luna, Ibai Leon, Maixus Otaegi, Nagore Cid, Oihane Gartzia, Ruben Markina eta Sara Iriondo.



Helduentzako antzezlan da, eta 80 minutuko iraupena dauka. Ikuskizuna 20:30ean hasiko da. Sarrerak salgai daude [herrikoantzokia.eus](http://herrikoantzokia.eus) atarian.

### Debabarreko orkestra sinfonikoak kontzertua emango du domekan, Herriko Antzokian



Datorren domekan (maiatzak 21), kontzertua emango du Debabarreko orkestra sinfonikoak, Iñigo Cearsolo elgoibartarrak zuzenduta. Ondorengo obrak joko dituzte: *Wedgwood blue* (Albert W. Ketelby), *Gladiator* (Hans Zimmer), *Xalbadorren Heriotzean* (Xabier Lete), *The Beatles in concert* (Lennon and Mc.Cartney), *Abba gold* (Benny Andersson / Björn Ulvaeus). 12:30ean izango da kontzertua, Herriko Antzokian.

### 'Jolasaren Astea' egitasmoan parte hartzeko deia egin diete herriko eragileei

Aurreko urtean bezala, Udal gaztelekuak, Udal ludotekak eta Atxutxiamaikak *Jolasaren Astea* egingo dute urrian. Programaren ekimenetako bat *Jolasa plazara* izango da. Urriaren 20an egingo dute, Kalegoen Plazan, eta eragileen asmoa jolas mota desberdinak kalera ateratzea da. Horretarako herriko eragileen parte-hartzea sustatu nahi dute, ziur daudelako askoren metodologiaren oinarrian jolasa dagoela, musika, orientazioa, sormena edo bestelakoak lantzeko. "Gure helburua, normalean ikusten ez diren jolas horiei kalean tokia egitea da, eta, horretarako, eragileak animatu nahi ditugu euren jolasak plazara ekartzera", esan dute. Gonbite honetara animatzen diren eragileek [jostailuerakusket@gmail.com](mailto:jostailuerakusket@gmail.com) helbidera idatzi dezakete edota 628 170 330 telefonora deitu.

### Gazta azoka egingo dute domekan, Mendaron

Gazta azoka antolatu du Mendaroko Udalak domekarako. 11:00etatik 14:00etara egingo dute plazan, eta bailarako lau gaztandegik hartuko dute parte: Mausitxa ardi gazta (Elgoibar), Egotza ahuntz

gazta (Soraluze), Axeleku behi gazta (Mallabia) eta Goienetxe ardi gazta (Mutriku). Gaztaz gain, Mendaroko bi sagardotegitako sagardoa dastatzeko aukera ere egongo da: Etarte eta Ospas.

## Munlet taldeak diskoa kaleratu du

**M**endaroko Munlet bikoteak disko berria kaleratu du: *Munlet plays Devo*. Azken zazpi urteotan kaleratu duen estreinako diskoa da. Proiektua pandemia aurretik sortu zuten, eta hainbat emanaldi egin zituzten Devo izenarekin. COVIDaren pandemiak etxeratu gintuenean, grabatu zuten Munletek diskoa, geldialdia baliatuta. Hamabi abestiz osatu dute lan hau, eta estreinakoz, abesti batzuk euskaraz egin dituzte. Devori, 70eko hamarkadaren erdialdetik aurrera rockaren bilakaera ulertzeko banda erabakigarria izan zenari, gorazarre halako bat da.



### 'Pintxoconcert' saioa antolatu du Elgoibarko musika eskolak datorren egunerako

Inazio Bereziartua musika eskolak antolatuta, Pintxoconcert saioa egingo dute maiatzaren 25ean. 18:30ean irtengo da Betisua txaranga musika eskolatik, eta kalejiran zehar hainbat geldialdi egingo ditu, herriko txoko desberdinetan. Geldialdi bakoitzean, musika eskolako talde bat izango du

zain, eta hainbat pieza joko dituzte guztiek batera. Ondoren, txarangak bere bidea jarraituko du. Musika eskolatik irten ostean, Kalebarren plazara joango dira, Kalegoen plazara ondoren, eta eliza azpian ere egingo dute beste geldiune bat. Amaiatu Lekuederren amaituko dute.

### Historiaurreari buruzko hitzaldi didaktikoak antolatu dituzte Morkaiko Leizarpe taldeak eta EHUK Mendaron

Morkaiko Leizarpe espeleologia taldeak eta EHUKo Historiaurreko Ikerketa Taldeak historiaurreari buruzko hitzaldi zikloa antolatu dute, Udalaren laguntzarekin. Lau hitzaldi izango dira, bi ekainean eta beste biak irailean. Ekainekoak gaztelaniaz izango dira, eta irailekoak, euskaraz. Hitzaldi denak Mendaroko udaletxeko udalbatza-aretoan izango dira, 19:00etan, doan. Alvaro Arrizabalaga EHUKo irakasleak emango du

lehenengo hitzaldia, ekainaren 9an: *El Valle del Deba y Mendaro durante el Paleolítico*. Bigarrena, ekainaren 16an izango da eta Maria Jose Iriarte-Chiapussok EHUKo irakasleak emango du: *Cambio climático durante la Prehistoria*. Ekainaren 9an izango da lehenengo hitzaldia: *El valle del Deba y Mendaro en el Paleolítico*. Bigarrena, berriz, ekainaren 16an: *El cambio climático en la prehistoria*.



### Aho zabalik laga zituen umeak Niala magoak

Niala magoak bi magia saio egin zituen eguaztenez Udal Liburutegian, eta aho zabalik laga zituen bertaratu ziren umeak. LH1ekoentzako saioa izan zen lehenengoa, eta LH2 eta LH3koentzat, bigarrena. Sokak, kartak eta bestelako hainbat objektu erabili zituen Nialak magia egiteko, eta horrez gain, umeei eurei ere eman zien hainbat trukotan parte hartzeko aukera. Ilusioz beteriko saioa eman zuen mago elgoibartarrak.



## Jokin Muñozek irabazi du Martin Fiz maratoia

Ia 400 antxitxikari lehiatu ziren, domekan, Gasteizen, Martin Fiz Maratoiaren 20. ekitaldian, eta Jokin Muñoz mendaroarra izan zen guztietan azkarrena. Bi ordu, 24 minutu eta 50 segundoan osatu zuen 42 kilometro eta 195 metroko ibilbidea. Muñozek 27 segundoko aldea atera zion helmugan bigarren egin zuen Jesus Gonzalezzi, eta 11 minutik gorakoa hirugarren egin zuen Guillermo Vahl atletari. Maratoi bat irabazten duen estreinako aldia izateaz gainera, maratoian zuen marka pertsonala ondu du Muñozek. Gainera, hezur edema lesio bat gainditu eta gero eskuratu du garaipena.

Muñoz pozez gainezka dago garaipenarekin eta bidelagun izan dituen guztiak izan ditu gogoan. "Maratoi honen irteeran egon ahal izatea bera garaipen bat modukoa izan da niretzat, urte eta erdian maratoirik korritu ezinda egon bainaiz lesio bat tarteko. Azken hilabeteetan gogor lan egin dut lesioa gainditzeko, baina ez naiz bakarrik aritu, profesional eta babesle askoren laguntza eduki dut, besteak beste, Emen Sport, Gogortuz



fisioterapia, Infisport Iturgintza. Mila esker guztioi, gehien gustatzen zaidana berriro egin ahal izateko eman didazuen laguntzagatik. Eta beti alboan izan ditudan KON Sportswear taldekoei ere eman nahi dizkiet eskerrak", esan du. Soraluzen bizi da Muñoz, eta etxera itzuli zenean zain zituen senideak eta lagunak, ongietorri beroa egiteko. Muñozek eurei eskaini zien garaipena, egunero ondoan dituen familiakoei eta lagunei.

## Enpresen Arteko Lasterketan, lehen hamarren artean sailkatu da Gorosabel

*El Diario Vasco*-k, Donosti Eventosek eta Adegik antolatzen duten Enpresen Arteko Lasterketaren 14. ekitaldia jokatu zuten, domekan, Donostian. Enpresek lantokiko lau langilerekin osatutako taldeak aurkeztu behar zituzten lasterketara eta laukote horrek 8,5 kilometroko ibilbidea egin behar zuen korrika, dortsalean enpresaren izena zutela. Aurten, hiru kategoria bereiztu dituzte: gizonezkoena, emakumezkoena eta mixtoak, eta kategoria bakoitzeko lehenengo hiru sailkatuak saritu zituzten. Emakumezkoen kategorian 51 talde lehiatu ziren, 330 mixtoenean eta 223 talde gizonezkoen kategorian. Elgoibartik eta Mendarotik aurkeztu ziren enpresen artean, Gorosabel enpresak lortu zuen sailkapen onena, gizonezkoen kategorian. Izan ere, zazpigarren sailkatu zen Iker Maiora, Jon Larrañaga, Eñaut Errazkin eta Julen Aramendik osatutako taldea, 00:32:34ko denbora eginda; hau da, kilometroa 3 minutu eta 49 segundoan eginda.



Txapeldunarengandik, bost minutura helmugaratu ziren. Gizonezkoen kategorian, Ausolan, JMA eta CAF Signallingek osatu zuten podiuma. Danobatek 32. egin zuen kategoria honetan. Emakumeetan berriz, ESI Donostialdeak, DAD Kutxabankek eta Oronak osatu zuten podiuma, eta kategoria mixtoan, Salto Systemsek, ESI DEbarrenak eta Deustuko Unibertsitateak.

## Gipuzkoako Bigarren Mailara igo da Elgoibarko saskibaloit taldea



**D**enboraldi aparta egin du Modelos Modelberri saskibaloit taldeak. Jokaturako 18 partidetatik 16 irabazi ditu eta multzoko lehen postuan amaitu du liga erregularra. Eta saria zuen lehen postuan amaitzeak: mailaz igotzeko kanporaketetan kantxa faktorea alde izatea, alegia. Izan ere, play-offak partida bakarrera jokatu dituzte Gipuzkoako Hirugarren Mailan, sailkapenik onena zuen taldearen etxean. Aurreko astean izan zuten mailaz igotzea lortzeko lehen aukera. Tolosako Take Coach taldearen aurka jokatu zuten finalerdietako

kanporaketa Olaizagan, baina tolosarrek lortu zuten finalerako sailkatzea, 55-81 irabazita. Elgoibartarrek mailaz igotzeko azken aukera izan zuten jokoan joan den zapatuan, berriro ere Olaizagan. Beste finalerdietako galtzailea, Andoaingo Xurrut taldea, izan dute aurkari. Etxekoek errenta txiki bat lortu zuten markagailuan, eta hori kudeatzen asmatu zuten azken minutuetan. 63-50 izan zen azken emaitza. Hortaz, Gipuzkoako Bigarren Mailan lehiatuko da Modelos Moelberri hurrengo denboraldian.

## Kadete nesken taldea Ohorezko Mailara igo da



Liga erregularra euren multzoko lehen postuan amaitu zuen C.D. Elgoibarrek kadete mailako nesken taldeak, jokaturako hamabi partidetatik 11 irabazi eta bakarra berdinduta. Igoera fasean ere bide beretik jarraitu dute, eta jardunaldi baten faltan bigarren postuan daude 31 punturekin, lehen postuan dagoen Intxaurdirekin berdinduta. Elgoibarrek bost puntuko aldea ateratzen dio hirugarren sailkatua den Debako Amaiak Bat taldeari, eta hortaz, ziurtatuta dute mailaz igotzea. Hurrengo denboraldian

Ohorezko Mailan lehiatuko dira. Azken jardunaldian, domekan, Euskaldunaren aurka jokatu dute Mintxetan. Senior emakumezkoen taldeak duela pare bat aste lortu zuen mailaz igotzea, baina denboraldi onetako talde txapelduna erabakitzeko finala jokatzea falta zaie, denboraldiari amaiera emateko. Hernani taldea izango dute aurkari. Orion izango da finala, 18:30ean, zapatuan, maiatzaren 20an. C.D. Elgoibarrek gainera, taldea animatzera joan nahi dutenezko autobusa antolatu du.

## Mayi Mujika, lehen euskaldunen artean Zegama-Aizkorri maratoian


**I**rudi ikusgarriak laga ditu aurtengo Zegama-Aizkorri mendi maratoiak, parte-hartzaileak baldintza zailetan aritu baitziren, euri-jasen ondorioz lokaztutako ibilbidean. Euria goian-behean zutela abiatu ziren 538 korrikalariak Zegamako plazatik, eta euria eta hotza izan zuten bidelagun 42 kilometroetan. Gure ordezkariak dagokionez, Mayi Mujikak 17. postua eskuratu zuen emakumezkoetan, eta bosgarrena izan zen euskal herritarren artean. Laura Rodriguez elgoibartarrak ere hartu zuen parte, estreinakoz, baina ezin izan zuen proba bukatu. Gizonezkoetan Angel Quintana Garciak 190. postuan amaitu zuen proba, 05:26:06ko denbora eginda. Beste hiru elgoibartarrek junior mailako lasterketan hartu zuten parte, Eneko Etxanizek, Alex Berguak eta Pablo Egizabalek, hain zuzen ere, hirurak Casa Astigarraga trail taldeko kideak. Gazteok 10,4 kilometroko ibilbidean lehiatu ziren. Etxaniz 19. postuan sailkatu zen, 36. postuan Egizabal eta 58. postuan Bergua. Era berean, barikuan, Zegama-Aizkorri Kilometro Bertikala jokatu zuten eta Ainhoa Lendinezek 15. postua lortu zuen mendi lasterketen modalitate honetako Euskal



Herriko eta munduko lasterkari onenek parte hartzen duten proban. Casa Astigarraga taldeko Iñaki Goenagak ere hartu zuen parte eta 29. postuan sailkatu zen plaentxiarra.

### Iñigo Lariz eta Azibar Iraolagoitia nagusi Lezamako BTT lasterketan

Lezaman jokatu zuten asteburuan mendi bizikletako Green Series txapelketako bosgarren jardunaldia, eta emaitza bikainak eskuratu zituzten Iñigo Lariz Azkuek eta Azibar Iraolagoitia Gallastegik. Lariz (Gobike) Master 40 kategorian lehiatu zen, eta bera izan zen azkarrena 31 parte-hartzaileen artean. Bost jardunaldiren ostean, sailkapen nagusiko bigarren dago, 745 punturekin. Larizek moduan, Azibar Iraolagoitia (MTE) mendarorak ere erakustaldia eman zuen Lezamako zirkuituan eta garaipena lortu zuen Master 50 mailan, bigarren sailkatuari (Ramon Ruiz) 56 segundoko aldea aterata. Sailkapen nagusian lehen postuan jarraitzen du mendarorak, 840 punturekin. Eduardo Del Collado dago bigarren, 820 punturekin.



🏆 Carlos Soguero



**LANA****Eskaerak**

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan, orduka edo asteburuetan. Esperientzia.

**642 578 943**

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan, orduka edo asteburuetan. Esperientzia.

**640 881 328**

Adinekoak zaintzeko edo garbiketak egiteko prest nago, orduka.

**692 454 912**

Edozein lan egiteko prest nago.

**641 988 643**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka, etxeko langile moduan eta gauetan ere bai. **631 125 127**

Adinekoak edo umeak zaintzen nahiz garbiketata lanak egiten jardungo nintzateke. Berehala lanean hasteko prest, edozein ordutegitan. **632 881 068** (Jessy)

Asteburuetan lan egiteko prest nago, adinekoak zaintzen edo etxeko lanak egiten. Eskarmentu handia. **631 125 127**

Umeak zaintzeko prest nago, uda sasoiari eta aurretik ere bai.

**688 865 250**

**Eskaintza**

Batxilergoko lehenengo mailako ikasle batek Kimika eskolak jasoko lituzke. Presazkoa da, azterketa prestatzeko behar duelako laguntza.

**669 339 529**

**KINTO OSPAKIZUNAK**

1968an jaiotako kinto ospakizuna, ekainaren 10ean.

Bazkaria, Sigma jatetxean.

Interesatuak 68 euro sartu behar dituzte ekainaren 4rako, izena eta abizena zehaztuz: ES7420803619283040069860. 12:30ean batuko dira Viento Sur tabernan argazkia ateratzeko.

1973an jaiotako kinto ospakizuna, ekainaren 10ean, Belaustegin. 12:00etan luntxa, Zubi Ondo elkartearen. Autobusa 14:30ean, Txankakuan. 90 € sartu behar dira Laboral Kutxan, maiatzaren 31rako: ES69 3035 0007 27 0071143415

**ETXEBIZITZAK**

Pisua alokagai, Donostian, ekainean eta uztailean. Oso argitsua, gela guztiek kanpoaldera ematen dute. Bi komun ditu, eta balkoia.

**688 687 820**

Merkatu txikiko iragarkiak bi astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta).

Autoak saltzea: 18€ .

Bestelakoak: 10€.

Iragarkiari erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

**BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta).

Autoak saltzea: 15€.

Bestelakoak: 8€.

Iragarkiari erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Sociedades  
Euzko Batzordeko Administrazioaren Lanbide-erakundea



**ROSA Mª PINTADO**

*Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749*

**660 969 679**  
**rosapf@telefonica.net**


**Hiru peora daude gure komunitatean, eta garbiketa enpresa bat kontratatu nahi dugu, hiru peorak eta leku komunak garbitzeko. Jakin nahiko nuke jabeakideon komunitatea egiten ari den guk aukeratu dugun enpresa horrek azpikontratatuak zerbiztu enpresak Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin dituen zorren erantzule.**

Kanpo enpresa baten, enpresari baten edo profesional baten zerbiztuak kontratatzen dituen komunitatea ez da sor daitezkeen lan istripuen erantzule egiten, ezta horrek arriskuak sahiesteko planik izan ezta ere. Eta ez da enpresa horrek bere betebeharrak ez betetzearen kargu egingo, ezta enpresa, profesional edo enpresari horrek Gizarte Segurantzarekin izan ditzakeen arazoaren erantzule egiten ere. Komunitateak enpresaren zerbiztuak kontratatu ditu, eta enpresarekin du lotura, ez enpresa horrek lan hori egiteko hartu dituen langileekin.

**AHOLKUA: Teknikoki ez dago lan azpikontrataziorik, eraikina garbitzea ez delako propio komunitatearen jarduerak eta hori egingo duen enpresa kontratatzean komunitateak ez duelako irabazirik ateratzen. Komunitateak egiten duen gauza bakarra zera da: enpresa bat hartu, eraikina egoerarik onenean egon dadin.**




**AHOLKULARI KOLABORATZAILEA**  
San Bartolome, 2

Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  688 655 658 bidalita.



Zorionak, **Sabin**, domekan 14 urte egingo dituzulako. Muxuak, familiakoen partez.



Zorionak, **Jule**, gaur 9 urte egin dituzulako. Gozatu eta ondo ospatu zure eguna. Muxu handiak, etxeko guztion partez.



Zorionak, **Eneko!** 9 urte handi dagoeneko! Primeran ospatu genuen zure eguna. Muxu handi bat etxeko guztien partetik, txapeladun!



Zorionak, **Eneko**, gaur 10 urte egin dituzulako. Muxu handi bat familiako denon partez.



Zorionak, **Martina!** Bihar 5 urte beteko dituzu! Muxu handi bat, familiako guztion partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.  
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO  
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK  
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.  
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.



Jarraitu gaitzazu **BARRENEK**  
Youtuben duen kanalean!



[www.youtube.com/user/Elgoibarrennet/videos](http://www.youtube.com/user/Elgoibarrennet/videos)

**EXPRESS ESKAINTZAK!**

**BOSCH WUU28T64ES  
ARROPA GARBIGAILUA**



**549 €**



- 8 kg karga
- 1.400 b/min
- Ecosilence motorra
- Wave Drum danborra
- Active Water teknologia
- 24 ordu arteko programazio geroratua

**MILARBIRE**

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

## 19 BARIKUA

**17:00** 'Jolasa Kalera barixakuetan'. Lekuederren.

**18:00** 'Umea hazi, musika biziz' izenburuko hitzaldia 4-7 urte arteko gurasoentzat, Mendaroko udalbatza aretoan. Ameikutz Musika Eskolak antolatuta, Udalaren laguntzarekin.

**19:30** Euskal dantzari bakarlarien erakustaldia Elgoibarren. Kalegoen plazan.

## 20 ZAPATUA

**11:00** Zientzia Azoka. Lekuederren.

## 21 DOMEKA

**10:00** Dolmenen ibilbidea: bisita gidatua, gazteleraz. Erreserba egiteko: 657 794 677 edo [info@begi-bistan.com](mailto:info@begi-bistan.com).

**11:00** Gazta azoka, Mendaron. Udalak antolatuta, Herriko Enparantzan.

**12:30** Kontzertua: Debabarreneko Orkestra Sinfonikoa. Herriko Antzokian.

**12:30** Kontzertua: Luca Grassi. Aita Agirre kulturgunean.

## 22 ASTELEHENA

**16:00** Hausnarketa taldea: Etxeko langileen eta zaintzako langileen lan eskubideak. Merlin Medina abokatuak gidatuko du. Lilan.

## 25 EGUENA

**19:30** Pintxoconcert: Kontzertuak egongo dira herriko hainbat txokotan, Musika Eskolak antolatuta.

## 26 BARIKUA

**20:30** Antzerkia: 'Bizitzaren maskaradak'. Taupadak aurkeztuko du, Herriko Antzokian.

## Zinea



### 'Fatum'

19 barikua: 19:00

20 zapatua: 19:00 / 22:15

21 domeka: 19:00

22 astelehena: 21:00

**2023ko botika ordutegiak:** 09:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

OHARRA: 2023an ez da iluntzeko farmazia zerbitzurik egongo Elgoibarren.

### MAIATZA

19 BARIKUA  
20 ZAPATUA  
21 DOMEKA  
22 ASTELEHENA  
23 MARTITZENA  
24 EGUAZTENA  
25 EGUENA  
26 BARIKUA

### Egunez

■ Ibañez  
Garitaonandia  
Garitaonandia  
Arriola  
■ Fernandez  
Yudego  
■ Oruesagasti  
Barrenetxea

**2023 urte guztian, gauetz: 22:00-09:00**

**Cristina Sanchez Castaño - Julian Etxeberria, 7 (Eibar)  
943 203 052**

■ Fernandez:  
Herriko Enparantza,4  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

■ Ibañez:  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

■ Oruesagasti:  
Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384





## *Jose Manuel Llonin Guerra*

2023ko maiatzaren 14an hil zen, 91 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Inoiz itzaliko ez den  
zeruko izarra bihurtu zara.  
Beti gurekin, asko maite zaitugu.***

Etxekoak



I.URTEURRENA

## *Ana Maria Lizaso Lopetegi*

2022ko maiatzaren 16an hil zen.  
Haren oroimenez I.urteurreneko meza izango da,  
zapatuan, maiatzaren 20an, 19:00etan,  
Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.  
Joango zaretenoi, alde zurretik eskerrak.

***Ez adiorik, laister arte baizik.***

Etxekoak



I.URTEURRENA

## *Kontxi Irusta Urbieta*

2022ko maiatzaren 21ean hil zen, 87 urte zituela.  
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da,  
zapatuan, maiatzaren 20an, 19:00etan,  
Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.  
Joango zaretenoi, alde zurretik eskerrak.

***Zure indarrak gidatuko dizkigu egunak,  
zure memoriak argituko ditu gure gauak***

Etxekoak



1. Artxe Arozherri Urtiaga  
2. Iratxe Larrañobeitxe Ibañeta  
3. Eneko Zabala Beaurio  
4. Josagi Hernandez Goena  
5. Nagore Oñi Alchizar

6. Iker Uribe Madoxa Alzola  
7. Jose Onizola Oñativia  
8. Andoni Etxebarria Arriaga  
9. Fariña Larrañobe Prieto  
10. Iker Oñi Goena Ibañeta

11. Ane Ariztondo Mitorozaga  
12. Jon Pea Uribea Arriaga  
13. Edo Sanchez Oñativia  
14. Miguel Alvarez Lasa  
15. Iñaki Matorozaga Ariztondo

16. Jesus Mera Mitorozaga Ertziaga  
17. Iker Oñi Goena Ertziaga  
18. Gorka Oñi Goena  
19. Iker Oñi Goena  
20. Jose Aguirre Goena Matorozaga



# Maitite duzuen

# Elgoibar

# ehbildu

# EGINAGO DUGU.